Lengoaia eta Sistema Informatikoak Saila

Informatika Fakultatea

CLIR Teknikak
Baliabide Urriko Hizkuntzetarako

Xabier Saralegi Urizarrek

Informatikan Doktore titulua eskuratzeko aurkeztutako

TESI-TXOSTENA

Donostia, 2017ko apirila

Lengoaia eta Sistema Informatikoak Saila

Informatika Fakultatea

CLIR Teknikak
Baliabide Urriko Hizkuntzetarako

Xabier Saralegi Urizarrek Eneko Agirre eta Iñaki Alegriaren zuzendaritzapean egindako tesiaren txostena, Euskal Herriko Unibertsitatean Informatikan Doktore titulua eskuratzeko aurkeztua

Donostia, 2017ko apirila

Eskerrak

- EHUko Iñaki Alegria eta Eneko Agirre zuzendariak: Nire tesi-lana maisuki zuzendu izanagatik, tesi-lanean zehar uneoro laguntzeko erakutsitako prestutasunagatik eta, batez ere, honelako lan luze bati heltzeko behar den etengabeko motibazioa bizirik mantentzea lortzeagatik.

- Elhuyar I+Gko Maddalen Lopez de Lacalle: Tesi-lan honetako ikergai nagusia den hizkuntza arteko informazioaren berreskurapenari buruzko esperimentuetako zenbait lanetan laguntzeagatik. Nabarmentzekoa eta benetan eskertzekoa izan da datu-multzoak prestatzen eta Indri tresnaz egindako esperimentuetan Maddalenen aldetik jaso dudan laguntza.

- Elhuyar I+Gko Iker Manterola: Pibotaje-tekniken bidezko hiztegien sorkuntzaren inguruko esperimentuetan bere aldetik jasotako laguntzagatik, batez ere, emaitzen ebaluazioan eta zenbait algoritmoren inplementazioan.

- Elhuyar I+Gko Iñaki San Vicente: Pibotaje bidezko hiztegien sorkuntzari buruzko esperimentuetako zenbait lanetan, tesi-lan hau osatzen duten artikulu zientifikoen ingelesezko erredakzioan eta LaTex-en maketatzen laguntzeagatik.

- Universidade de Santiago de Compostela-ko Pablo Gamallo: Amarauneko bilatzaileen bidez bildutako testuinguruen azterketa linguistikoa lantzean jasotako laguntzagatik.

- Elhuyar I+Gko Igor Leturia: Tesi-lan honen erredakzioa orrazten laguntzeagatik, eta Elhuyarreko I+G taldeko arduraduna zela hizkuntza arteko berreskurapenaren ildoaren aldeko apustua egin izanagatik.

- Elhuyar I+Gko Antton Gurrutxaga: Tesi-lan honen erredakzioan erabilitako terminologiaren inguruko zalantzak argitzeagatik, eta Elhuyarreko I+G taldeko arduraduna zela hizkuntza arteko berreskurapenaren ildoa martxan jartzea sustatzeagatik.
- Elhuyar I+Gko Josu Aztiria: Elhuyarreko Hizkuntza eta Teknologia saileko arduraduna zelarik, hizkuntza teknologien garapenean erakutsitako konfiantzagatik.
- Ezin utzi aipatu gabe une puntualetan laguntza eman edo eskaini didaten Elhuyar Fundazioko eta IXA taldeko beste hainbat kide.

Gaien Aurkibidea

I. KAPITULUA

Sarrera

I.1 Motibazioa eta eszenatokia

Gaur egungo jendartean informazio-trukaketak garrantzia handia du eremu eta alor askotan. Informazio digitala gero eta ugariagoa da, eta horren ondorioz, informazio hau ustiatzeko metodo automatikoen garapena ezinbestekoa da.

Automatizatu beharreko egitekoen artean bilaketa eta, harekin lotuta, informazioaren berreskurapena (*Information Retrieval* edo *IR* ingelesez) dugu. Informazioaren berreskurapenean sistema automatiko batek erabiltzaileak duen informazio-behar bati erantzun behar dio, erabiltzailearen informazio-beharrarekiko adierazgarria den informazioa itzuliz.

Hainbat testuingurutan (adibidez, denda birtualak, posta elektronikoa, eztabaida-foroak, kazetaritzako dokumentazio-lanak, amaraunean egiten diren kontsulta informazionalak) bilatu nahi den informazio adierazgarria hainbat hizkuntzatan egon daiteke. Baina informazioren berreskurapenerako sistema klasiko batean kontsultak eta kontsultatu beharreko bilduma hizkuntza berekoak izan ohi dira. Beraz, horrelako sistema klasiko bat ez litzateke egokia izango ingurune eleaniztunetan, non kontsultak formulatzeko hizkuntzak eta kontsultatu beharreko bildumaren hizkuntzak ez duten zertan berdinak izan behar.

Hizkuntza arteko informazioaren berreskurapena (*Cross Lingual Information Retrieval* edo CLIR ingelesez) da, hain zuzen ere, aipatutako eszenatoki eleaniztunetan egokia den prozesua. Prozesu hau informazioaren

berreskurapenaren aldaera bat da, non kontsultaren hizkuntza (*L1*) eta helburu-bildumarena (*L2*,*L3*,...) desberdinak diren (ikusi I.1 irudia).

Informazioa bilatzen duen erabiltzailea eleaniztuna izango balitz, edo bere hizkuntzara itzultzen duen itzulpen automatikorako sistema egoki bat eskuragarri izango balu, emaitza aberatsagoak lor litzake CLIR sistema baten bidez IR sistema elebakar batez baino. Benetan aberatsagoak izango lirateke baldin eta hizkuntza guztietatik jasotako informazio-zatiak osagarriak izango balira (adibidez, herrialde ezberdinetako egunkari digitalak).

Hortaz, ondoriozta daiteke CLIR sistema bat guztiz beharrezkoa izan dadin, bi baldintza bete beharko lituzkeela eszenatokiak: alde batetik, erabiltzaileak hizkuntza bat baino gehiago ulertzea, eta bestetik hizkuntza horien informazio adierazgarria osagarria izatea.



I.1 irudia: CLIR ($L1 \rightarrow L2$) sistema baten arkitekturaren grafikoa.

Kontrakoa pentsa daitekeen arren, ingurune eleaniztunak ugariak dira munduan, eta munduko biztanle gehienak elebidunak edota eleaniztunak dira. David-en [1997] arabera munduko umeen bi herenak ingurune elebidunetan hazten dira. [Tabouret-Keller, 2004] lanaren arabera Europako eleaniztasun-tasa populazioaren %50ekoa da. Hortaz, esan liteke oso fenomeno naturala dela gaur egungo gizarteetan, bai herrialde garatuetan baita garapenean dauden herrialdetan ere.

Munduan 6.000 hizkuntza inguru existitzen dira, eta gehienak hiztun

gutxiko hizkuntzak dira. Izan ere, 60 hizkuntzak soilik dauzkate 10 milioitik gora hiztun. Hauen artean, ingelesa nagusitu da nazioarteko esparru askotan, mundu mailako *lingua franca* bilakatuz. Guztira 510 milioi pertsonak daki ingelesez. Pentsa liteke, hortaz, hizkuntza bakar bat nagusitzen ari denez, hizkuntza arteko informazioaren berreskurapenerako teknologia ez dela beharrezkoa. Halere, hiztunen kopuruak sakonago aztertzen baditugu, ingelesezko hiztunak mundu osoko populazioaren %8ra ez direla iristen ikusten dugu. Alegia, populazioaren %92ak ingelesez ez daki. Horrez gain, 510 milioi horietatik 340 baino ez dira jatorrizko hiztunak. Datu hau garrantzitsua da jarraian ikusiko dugun bezala.

Pertsonak edozein ulermen- edo adierazpen-prozesutan seguruago sentitzen dira beren ama-hizkuntza erabiltzen dutenean. Informazioaren berreskurapenerako sistemen erabileran ere hori betetzen dela frogatu da zenbait ikerketatan [Zazo et al., 2005, Vundavalli, 2008]. Europako Batzordeko azterketa bat [Eurobarometer, 2011] antzeko ondorioetara iritsi zen. Azterketa honen arabera amarauneko erabiltzaileen %90ek bere hizkuntzan nabigatu nahiago izaten du, eta erabiltzaileen %44k uste du informazioa galtzen duela bere hizkuntzan bakarrik nabigatzen duenean.

Hizkuntza arteko informazioaren berreskurapenak irtenbidea ematen dio aurreko paragrafoan aipatutako problematikari [Gonzalo, 2002, Marlow et al., 2008]. Halere, hizkuntza arteko informazioaren berreskurapenerako sistemen garapena ez da tribiala, batez ere, garapen digital txikiko hizkuntzen (Baliabide Urriko Hizkuntzak izendatuko ditugunak) kasuan, non hizkuntza handietarako eskura dauden zenbait baliabide askoz urriagoak diren. Baliabide Urriko Hizkuntzak testuinguru eleaniztun gehienetan aurkituko ditugu.

Tesi honetan hizkuntza arteko informazioaren berreskurapenerako zenbait teknika ikertu ditugu, baliabide urriko hizkuntzetarako egokiak direnak. Azken helburua baliabide urriko hizkuntzetarako CLIR sistema eraginkor bat nola gara daitekeen ikertzea da. Baliabide urriko hizkuntzetarako eszenatoki honek corpus paralelo eta itzulpen automatikorako sistemak ez erabiltzera mugatuko gaitu.

CLIR sistemetan bi estrategia nagusi daude hizkuntzaren arteko berreskurapenari aurre egiteko: kontsulta bildumaren hizkuntzara itzuli edo bilduma kontsultaren hizkuntzara. Artearen egoerari buruzko kapituluan estrategia guztiei eta beraiek inplementatzeko zenbait teknikari buruz hitz egingo badugu ere, aurreratu dezakegu kontsulta itzultzea dela gehien erabilitako estrategia, batez ere, estrategia eskalagarriagoa delako.

Kontsultaren itzulpena egiteko zenbait teknika proposatu dira literaturan, lau talde nagusitan sailkatu daitezkeenak, bakoitzak eskatutako

baliabideari erreparatzen badiogu:

1. Itzulpen automatikoan oinarritutakoak.
2. Corpus paraleloetan oinarritutakoak.
3. Hiztegi elebidunetan oinarritutakoak.
4. Corpus konparagarrietan oinarritutakoak.

Baliabide hauek eskuragarritasunaren edo eskuratzeko zailtasunaren arabera sailkatu behar izango bagenitu, itzulpen automatikoak eta corpus paraleloak izango lirateke lehenengoak, corpus konparagarriak eta hiztegi elebidunak errazago lortu daitezkeelarik.

Lan honetan, hain zuzen, azken baliabide horietan oinarritutako CLIR teknikak landu ditugu, lanaren helburua baliabide urriko hizkuntzetarako CLIR teknikak garatzea baitugu. Halaber, kontsulta-saioak, IR sistema guztietan lortu daitekeen baliabidea, ustiatu nahi ditugu kontsulta itzultzeko prozesua hobetze aldera. Teknika hauen bidez CLIR sistema gai izango da erabiltzaileak formulatutako kontsulta bildumaren hizkuntzara itzultzeko.

Itzulpen-prozesu horretan aurre egin beharreko arazo nagusiak honako biak dira:

- Kontsultako hitz bakoitzeko itzulpen-hautagaiak lortzea.
- Itzulpen zuzenak hautatzea.

Halaber, CLIR teknika hauetarako baliabide nagusia den hiztegi elebiduna modu automatikoan sortzeko teknikak ere landu ditugu tesi-lan honetan. Kasu honetan ere hiztegietan eta corpus konparagarrietan soilik oinarritutako teknikak aztertu eta garatu ditugu. Bi hiztegi elebidun (D_{a-b} eta D_{b-c}) gurutzatuz eta hizkuntza bat pibote erabiliz hiztegi elebidun berriak (D_{a-c}) sortzeko estrategia aztertu eta landu dugu.

I.2 Helburuak

Dokumentuen berreskurapenerako sistema baten helburua erabiltzaileak egindako kontsultarekiko adierazgarriak diren dokumentuak berreskuratzea da. Dokumentuak eta kontsulta hizkuntza ezberdinetakoak baldin badira, hizkuntza arteko sistema bati buruz ari gara.

Hizkuntza arteko informazioaren berreskurapenerako sistema bat garatzean kontsulta itzultzea da hizkuntzaren mugari aurre egiteko

hurbilpenik erabiliena. Kontsulta itzultzeko estrategia arrakastatsuenak itzulpen automatikoko sistema edo corpus paraleloetan oinarritzen dira, baina baliabide hauek urriak dira aurreko atalean aipatutako baliabide urriko hizkuntzen eszenatokietan. Horrelako egoeretan egokiagoa litzateke eskuragarriago diren baliabideetan oinarritutako kontsulta itzultzeko estrategia bat. Tesi honetan frogatu nahi dugu baliabide nagusi horiek hiztegi elebiduna eta horren osagarri diren corpus konparagarriak eta kontsulta-saioak izan daitezkeela. Hipotesi hori baieztatzeko honako azpihelburuak finkatu ditugu:

- Kontsultak itzultzeko hiztegietan oinarritutako tekniken azterketa eta konparaketa, arreta berezia itzulpen-hautapenaren arazoan jarriz.
- Amarauna corpus konparagarri gisa erabiltzea kontsultaren itzulpen-prozesua hobetzeko.
- Kontsulta-saioak emandako testuinguru zabalaren informazioa erabiltzea kontsulten itzulpen-prozesua hobetzeko.
- Pibotaje bidezko metodoen azterketa hiztegi elebidunak sortzeko baliabide urriko hizkuntzetarako, hizkuntza pare batentzat hiztegirik ez dagoenean.

Helburu hauek lortzeko metodologia eta emaitzak hainbat argitalpen zientifikotan argitaratu dira. Hortaz, tesi hau artikulu-bilduma bezala aurkeztu dugu, non artikuluak aurreko azpihelburuekin bat datozen. Horrez gain, azterketa bibliografiko bat egin da gaiaren gaur egungo egoera islatzeko asmoz, eta tesiaren garapenean jorratu diren ekarpenak bildu dira bukaeran.

I.3 Tesiaren Egitura

Esan bezala, tesi honen erredakzioak artikulu bildumaren formula jarraitzen du. Artikuluak III. IV. V. eta VI. kapituluetan aurkezten dira. II. kapituluan CLIR ataza burutzeko tekniken inguruko azterketa bibliografikoa eta tesi-lan honek biltzen dituen esperimentuetan erabilitako baliabideak deskribatzen ditugu. Tesi honetan egindako lanen ondorio nagusiak VII. kapituluan aurkezten ditugu.

Artikuluak lau kapitulutan antolatu ditugu erreferentzia gisa azpihelburuak erabiliz:

- Kontsultak itzultzeko hiztegietan oinarritutako metodoen azterketa eta konparaketa (III. kap.):

  - Xabier Saralegi and Maddalen Lopez de Lacalle. Comparing different approaches to treat translation ambiguity in CLIR: Structured queries vs. target co-occurrence based selection. In *2009 20th International Workshop on Database and Expert Systems Application*, pages 398–404. IEEE, 2009
  - Xabier Saralegi and Maddalen Lopez de Lacalle. Dictionary and Monolingual Corpus-based Query Translation for Basque-English CLIR. In *Proceedings of the Seventh International Conference on Language Resources and Evaluation (LREC'10)*, 2010a

- Amarauna corpus konparagarri gisa erabiltzea kontsultaren itzulpena hobetzeko (IV. kap.):
  - Xabier Saralegi and Maddalen Lopez de Lacalle. Estimating translation probabilities from the web for structured queries on CLIR. In *European Conference on Information Retrieval*, pages 586–589. Springer, 2010b
  - Xabier Saralegi and Pablo Gamallo. Analyzing the sense distribution of concordances obtained by web as corpus approach. In *International Conference on Intelligent Text Processing and Computational Linguistics*, pages 355–367. Springer, 2013

- Saioen informazioa baliatzea kontsultaren itzulpen-prozesua hobetzeko (V. kap.):
  - Xabier Saralegi, Eneko Agirre, and Iñaki Alegria. Evaluating Translation Quality and CLIR Performance of Query Sessions. In *Proceedings of the Tenth International Conference on Language Resources and Evaluation (LREC 2016)*, 2016

- Hiztegi elebidunen sorkuntza pibotaje-tekniken bidez (VI. kap.):
  - Xabier Saralegi, Iker Manterola, and Inaki San Vicente. Analyzing methods for improving precision of pivot based bilingual dictionaries. In *Proceedings of the Conference on Empirical Methods in Natural Language Processing*, pages 846–856. Association for Computational Linguistics, 2011

I.4 Tesiaren Laburpena

CLIR sistema batean kontsultaren itzulpen-prozesuan aurre egin beharreko arazo nagusiak honakoak dira:

- Kontsultako hitz bakoitzeko itzulpen-hautagaiak lortzea.
- Itzulpen zuzenak hautatzea.

III. kapituluan bi arazo horiek tratatzeko zenbait teknikaren azterketa eta konparaketa azaltzen dira. Aztertutako tekniketan itzulpen-hautagaiak hiztegi elektroniko batetik eskuratzen dira. Itzulpen anbiguoak ebazteko bi metodo aztertu eta alderatu ditugu: Pirkolaren metodoa [Pirkola, 1998], eta agerkidetzan oinarritutako algoritmo iteratibo bat [Monz and Dorr, 2005]. Pirkolaren metodoak hautapen espliziturik ez du egiten, berreskurapen-prozesuan hitz bakoitzeko hiztegitik eskuratutako itzulpen-hautagai guztiak hartzen baititu. Ranking-funtzioa kalkulatzean jatorrizko hitz bereko itzulpen-hautagaien estatistikak modu berezi batean kalkulatzen dira haien maiztasunak bateratze aldera.

Agerkidetzan oinarritutako algoritmoak, aldiz, esplizituki egiten du itzulpen-hautapena, eta berreskurapen-algoritmoa aplikatu aurretik. Agerkidetzak, helburu-bildumatik hartuak, helburu-hizkuntzan probabilitate handieneko itzulpen-hautagai multzoa kalkulatzeko erabiltzen dira, algoritmo iteratibo baten bidez.

Ebaluazioaren arabera bi metodoek nabarmen gainditzen dute itzulpen-hautapenerako hiztegitik lehen itzulpena hartzen duen *baseline*a edo oinarri-lerroa (%10-15 hobea). Kontsulta laburrak (2-3 hitzekoak) prozesatu behar direnean portaera antzekoa lortzen da bi metodoekin; kontsulta luzeekin, aldiz, Pirkolaren metodoak portaera eraginkorragoa eskaintzen du.

III. kapituluan, itzulpen-hautapenerako teknikak lantzeaz gain, hiztegien bidezko itzulpen-estrategian gertatzen diren erroreen azterketa ere egin dugu. Errore bakoitzak berreskurapen-prozesuaren eraginkortasunean duen eragina kuantifikatzeaz gain, erroreak tratatzeko metodo bana proposatu eta ebaluatu dira. Guztira hiru errore-iturri aztertu ditugu:

- Hiztegitik kanpoko -edo *Out of Vocabulary* (OOV)- hitzak.
- Hitz anitzeko terminoak.
- Itzulpen anbiguoak.

Itzulpen-anbiguotasuna eta hitz anitzeko unitateen presentzia dira CLIR prozesuan kalitate-jaitsiera handiena eragiten duten faktoreak. Hitz anitzeko unitateen presentziak %20 eta %9 inguruko beherakadak eragiten ditu kalitate aldetik, kontsulta laburren eta luzeen berreskurapen-prozesuan hurrenez hurren. Itzulpen-anbiguotasunaren kasuan %32ra eta %17ra iristen

dira jaitsierak, kontsulta laburretan eta luzeetan. OOV hitzen presentziak %12ko jaitsiera eragiten du kontsulta laburren berreskurapenean, eta %4koa kontsulta luzeen kasuan.

Itzulpen-anbiguotasuna tratatzeko agerkidetzan oinarritutako metodoaren zenbait aldaera aztertu dugu, kontsulta laburren kasuan %23ko hobekuntza lortuz hiztegitik lehen itzulpena hartzen duen *baseline*aren gainean. Hitz anitzeko terminoak itzultzeko hiztegi terminologikoan oinarritutako parekatze-metodo bat erabili da, *baseline*aren gainean %5eko hobekuntza lortzen duena. OOV hitzen presentziari aurre egiteko kognatuen detekzioan oinarritako metodo bat baliatu da, *baseline*aren gainean %9ko hobekuntzara heltzen dena.

IV. kapituluan, corpus konparagarri elebidunetan ezkutuan dagoen itzulpen-ezagutza CLIR prozesuan baliatzeko modua aztertu dugu, zehazki itzulpen-hautapenean aplikatuta.

Horretarako Pirkolaren metodoaren aldaera bat hartu dugu oinarri, [Darwish and Oard, 2003] artikuluan aurkeztutakoaren ildotik. Pirkolaren metodoaren aldaera honek jatorrizko hitz baterako hiztegitik hartutako itzulpen-hautagaiei pisuak esleitzea ahalbidetzen du. Pisu horiek antzekotasun distribuzionala konputatuz estimatu dira, corpus konparagarri elebidun batetik abiatuta.

Antzekotasun distribuzionala konputatzeko behar besteko testuinguruen kopurua bermatzeko amarauna corpus konparagarri erraldoi gisa nola erabil daitekeen aztertu dugu. Modu horretan lortutako hizkuntza arteko pisuak berreskurapen-prozesuan erabilita Pirkolaren metodoan oinarrituako *baseline*aren gainean %2ko hobekuntza lortzen da.

Esperimentuak gaztelania-ingelesa CLIR ataza baten barruan burutu dira, testuinguruak berreskuratzeko amaraunerako zenbait bilatzaile (*WebCorp*, *Google Blog Search* eta *Google News Archive*) aztertu nahi izan zirelako. Dena dela, emaitzak edozein hizkuntza-bikotetara estrapolatu daitezke.

Bilatzaileen erabilera, testuinguruak eskuratze aldera, sakonago aztertu nahi izan dugu beste esperimentu batean. Bilatzaileak ez daude pentsatuta datu linguistikoak biltzeko, baizik eta informazio adierazgarria aurkitzeko. Esperimentuan, hain zuzen ere, horixe aztertu nahi izan dugu, zenbateraino diren linguistikoki adierazgarriak bilatzaileen bidez bildutako testuinguruak. Azterketa horren motibazioa aurreko esperimentuan aurkitzen dugu, non antzekotasun distribuzionala konputatzeko testuinguruak bilatzaileen bidez lortu ditugun. Horretarako SemCor[1] (adierekin etiketatutako

[1] http://web.eecs.umich.edu/~mihalcea/downloads.html#semcor

corpusa) eta bilatzaileen bidezko testuinguruen arteko aldea neurtu dugu, adiera-banaketari dagokionez. Adiera-banaketaz gain adiera-aniztasuna eta koherentzia linguistikoa ere neurtu ditugu.

Adiera-banaketari dagokionez, korrelazio apur bat dago SemCor eta bilatzaileen artean. Korrelazio baxuena WebCorp-ek ematen du, ziur asko azpian dituen amaraun osoko bilatzaileetan kontsulta nabigazionalei eta popularitateari lotutako faktoreei ematen zaien pisuarengatik.

V. kapituluan kontsultaz gaindiko testuinguruak baliatu nahi izan ditugu hiztegian oinarritutako CLIR prozesuaren itzulpen-hautapena burutzeko. Zehazki, kontsulta-saioetatik erauzitako testuinguruaren erabilera aztertu nahi izan dugu. Itzulpen-hautapena egiteko problema nagusietako bat testuinguru-informazioaren falta izaten da, CLIR sistema batean kontsulta itzuli nahi denean. Kontsulta asko laburrak direnez, kontsultako hitzek adierazitako testuingurua ez da nahikoa itzulpen-hautapena eraginkortasunez gidatzeko.

Esperimentuak birformulazio motako saioetan zentratu dira: a) zehazte, b) dibagazio, eta c) orokortze birformulazioetan zehazki. Birformulatutako kontsulta itzultzeko aurreko kontsultak adierazitako testuinguruak zenbateraino laguntzen duen neurtu da ebaluazioan. Hobekuntza lortzen da zehazte eta orokortze birformulazioen kasuan.

Hiztegietan oinarritutako CLIR sistemek orokorrean emaitza onargarriak eskaintzen dituzte. Hiztegi elebiduna da, beraz, funtsezko baliabidea. Baina zenbait hizkuntza-bikoteren kasuan hiztegi elebidunik ez da existitzen, edo ez da eskuragarri egoten. Hiztegi elebidunak modu automatikoan sortzeko estrategiak aztertu ditugu VI. kapituluan, hiztegi elebidunen gurutzaketan oinarritutako teknikak erabiliz.

Gurutzaketaren bidez D_{a-c} hiztegi elebiduna sortzen dugu D_{a-b} eta D_{b-c} hiztegietatik abiatuta, hau da, b hizkuntza zubi edo pibote baten modura erabiliz. Gurutzaketa hutsaren bidez lortutako hiztegitik itzulpen okerrak kimatzeko bi teknika eta beren konbinaketa bat aztertu ditugu. Bata, alderantzizko kontsulta (*Inverse Consultation*, IC ingelesez) [Tanaka and Umemura, 1994], hiztegien egituraz soilik baliatzen da. Bestea [Kaji et al., 2008, Gamallo and Pichel, 2010], corpus konparagarri elebidunetatik kalkulatutako antzekotasun distribuzionalean dago oinarrituta.

Esperimentuetan D_{eu-en} (euskara-ingelesa) eta D_{en-es} (ingeles-espainiera) hiztegiak gurutzatu ziren D_{eu-es} (euskara-espainiera) hiztegi bat sortzeko. Zenbait eszenatoki simulatzen zituen ebaluazio baten arabera, IC teknikak doitasun handiko hiztegiak bermatzen ditu. Antzekotasun distribuzionalak, aldiz, estaldura handiagoa ahalbidetzen du. Bi teknikak konbinatuz doitasun eta estalduraren arteko orekarik onena

lortzen da.

I.5 Argitaratutako artikuluak

Aipatu bezala tesia artikulu-bilduma bezala egituratu da. Tesiak biltzen dituen artikuluak honakoak dira:

- Xabier Saralegi and Maddalen Lopez de Lacalle. Comparing different approaches to treat translation ambiguity in CLIR: Structured queries vs. target co-occurrence based selection. In *2009 20th International Workshop on Database and Expert Systems Application*, pages 398–404. IEEE, 2009
- Xabier Saralegi and Maddalen Lopez de Lacalle. Dictionary and Monolingual Corpus-based Query Translation for Basque-English CLIR. In *Proceedings of the Seventh International Conference on Language Resources and Evaluation (LREC'10)*, 2010a
- Xabier Saralegi and Maddalen Lopez de Lacalle. Estimating translation probabilities from the web for structured queries on CLIR. In *European Conference on Information Retrieval*, pages 586–589. Springer, 2010b
- Xabier Saralegi and Pablo Gamallo. Analyzing the sense distribution of concordances obtained by web as corpus approach. In *International Conference on Intelligent Text Processing and Computational Linguistics*, pages 355–367. Springer, 2013
- Xabier Saralegi, Eneko Agirre, and Iñaki Alegria. Evaluating Translation Quality and CLIR Performance of Query Sessions. In *Proceedings of the Tenth International Conference on Language Resources and Evaluation (LREC 2016)*, 2016
- Xabier Saralegi, Iker Manterola, and Inaki San Vicente. Analyzing methods for improving precision of pivot based bilingual dictionaries. In *Proceedings of the Conference on Empirical Methods in Natural Language Processing*, pages 846–856. Association for Computational Linguistics, 2011

Tesi honetatik kanpo badaude ere, jarraian zerrendatzen dira hizkuntzaren prozesamenduaren alorreko terminologia-erauzketa eta iritzien erauzketa ikergaietan elkarlanean argiratu ditudan beste artikulu adierazgarri batzuk.

Terminologia-erauzketan:

- Iñaki Alegria, Antton Gurrutxaga, Pili Lizaso, Xabier Saralegi, Sahats Ugartetxea, and Ruben Urizar. A XML-Based Term Extraction Tool for Basque. In *LREC*, 2004

- Antton Gurrutxaga, Xabier Saralegi, Sahats Ugartetxea, and Iñaki Alegria. Elexbi, a basic tool for bilingual term extraction from Spanish-Basque parallel corpora. In *Atti del XII Congresso Internazionale di Lessicografia: Torino, 6-9 settembre 2006*, pages 159–165, 2006

- Xabier Saralegi, Iñaki San Vicente, and Antton Gurrutxaga. Automatic extraction of bilingual terms from comparable corpora in a popular science domain. In *Proceedings of Building and using Comparable Corpora workshop*, pages 27–32, 2008

Iritzien erauzketan:

- Xabier Saralegi, Iñaki San Vicente, and Irati Ugarteburu. Cross-Lingual projections vs. corpora extracted subjectivity lexicons for less-resourced languages. In *International Conference on Intelligent Text Processing and Computational Linguistics*, pages 96–108. Springer, 2013

- Iñaki San Vicente and Xabier Saralegi. Polarity Lexicon Building: to what Extent Is the Manual Effort Worth? In *Proceedings of the Tenth International Conference on Language Resources and Evaluation (LREC 2016)*, Paris, France, may 2016. European Language Resources Association (ELRA)

I.6 Sortutako baliabideak

Tesi-lan honen testuinguruan hiztegietan oinarritutako hizkuntza arteko bilaketa inplementatzen duen kode irekiko pakete bat, Bilakit[2] izenekoa, garatu da. Paketeak Solr/Lucene bilaketa-tresnaren gainean funtzionatzen du eta erraz integratu daiteke edozein garapen-proiektutan. Bilakitek inplementatzen dituen funtzio nagusiak honakoak dira:

- Hizkuntza arteko informazioaren berreskurapena.

[2]https://github.com/Elhuyar/Bilakit

- Lematizazio eleaniztuna.
- Entitateen erauzketa eta sailkapena.
- Hizkuntza gehiagotara hedatzeko erraza.

Bilakit paketea Elhuyarrek merkaturatzen duen Xenda[3] izeneko soluzioaren oinarri teknologikoa da. Xendak adimena, eleaniztasuna eta zehaztasuna eransten dizkie informazio-sistemei ondoko bilaketa- eta nabigazio-funtzio aurreratuen bidez:

- Hizkuntza batean bilaketa bat egin, eta hizkuntza batean baino gehiagotan erakusten ditu emaitzak.
- Bilaketetarako laguntza-funtzioak: auto-osaketa eta zuzenketa ortografikoa.
- Emaitzak ordenatzeko irizpide bat baino gehiago, hainbat eremutan aplikagarriak.
- Lematizazioa.
- Erlazionatutako edukiak, barrukoak zein kanpoko iturburuetakoak.
- Edukien aberaste semantikoa izendun entitateen markaketaren bidez (pertsonak, tokiak eta erakundeak).

Bestalde, zenbait hizkuntzatarako hiztegi elebidunak ere sortu ditugu, kasu batzuetan pibotaje-teknikak baliatuz[4].

[3] http://xenda.elhuyar.eus/
[4] http://hiztegiautomatikoak.elhuyar.eus/

II. KAPITULUA

Artearen egoera eta erabilitako baliabideak

Kapitulu honetako lehenengo lau ataletan CLIR ataza aurrera eramateko literaturan proposatutako hurbilketak eta teknikak azalduko ditugu. IR eta CLIR atazetan erabilitako estrategia nagusiak aurkezteaz gain, tesi-lan honetan landuko ditugun hiru gaitan jarriko dugu arreta berezia: a) kontsulten itzulpenerako metodoak, b) corpus konparagarrien aplikazioa CLIRen, eta c) kontsulta-saioen ustiaketa. Bosgarren atalean kontsultak itzultzeko zenbait hurbilketetan ezinbestekoak diren hiztegi elebidunak modu automatikoan sortzeko pibotaje-tekniken azterketa bibliografikoa aurkeztuko dugu. IR eta CLIR sistemak ebaluatzeko literaturan proposatzen diren metriken laburpena seigarren atalean azalduko dugu. Zazpigarren atalean IR eta CLIR alorretan euskararen gainean burutu diren ikerlanen laburpena azalduko dugu. Bukatzeko, zortzigarren atalean, tesi-lan honetako esperimentuetan erabilitako baliabideak, datu-bildumak, eta tresnak deskribatuko ditugu.

II.1 IR eta CLIR inguruneak

Informazio digitala gero eta ugariagoa da. Hori dela eta, gizakiak horren kopuru handiak kontsultatzeko bilaketa edo informazioaren berreskurapenerako (*Information Retrieval* edo IR) sistemak behar ditu [Salton and McGill, 1986, Baeza-Yates et al., 1999, Manning et al., 2008]. Mota honetako sistemek bultzada nabarmena izan zuten amaraunaren eztandarekin, horren biltegi handian informazio adierazgarria modu azkarrean eta eraginkorrean aurkitzea premiazko bilakatu baitzen. Adibide

adierazgarriena Google bilatzailean dugu, gaur egun pertsona gehienentzako eguneroko tresna bilakatu dena.

IRko ikergaien multzoa zabala bada ere, ebatzi beharreko ataza oinarrizkoena testu-bilduma batean gai zehatz bati buruzko testuak lortzea da. Horrela, gaia, edo informazio-beharra, zenbait hitzetako kontsulta (*query* ingelesez) baten bidez $q = (w_0, .., w_n)$, adierazten du erabiltzaileak, adibidez, $q_0 = (ibilgailu, elektrikoen, teknologia)$. Sistemaren emaitza kontsulta horrekiko adierazgarriak diren edukien zerrenda edo ranking bat da, $D = (d_0, .., d_n)$, adierazgarritasun-mailarako irizpidea gai-antzekotasuna (*topic similarity* ingelesez) izanik. Zerrenda hau adierazgarritasun-mailaren arabera ordenatuta egon daiteke. Zenbat eta eduki adierazgarri gehiago zerrenda-hasieran, orduan eta arrakasta-maila hobearekin betetzen da ataza. Ebaluazio-metodoei buruz 7. atalean hitz egingo dugu.

Literaturako IR sistemak honako ereduen arabera sailkatzen dira:

- Eredu boolearra [Lancaster and Gallup, 1973]: Multzoen teorian eta boolear aljebran oinarritutako eredua da. Dokumentuak multzoen bidez adierazten dira, eta kontsultak adierazpen logikoen bidez. Kontsultari dagokion adierazpen logikoa dokumentu baten hitz multzoari aplikatuz lortzen da bigarren honen adierazgarritasun-maila.

- Bektore-espazioan oinarritutako eredua [Salton et al., 1975]: Dokumentuak eta kontsultak bektoreen bidez adierazten dira. Adierazgarritasun-maila bi bektoreak konparatuz lortzen da.

- Eredu probabilistikoa: Dokumentuak eredu probabilistikoen bidez adierazten dira. Kontsulta bat emanda, harekiko adierazgarriak izateko probabilitatearen arabera ordenatzen dira dokumentuak. Bi eredu probabilistiko mota ezberdin bereizi daitezke; eredu klasikoak [Robertson et al., 1980] eta hizkuntza ereduak [Ponte and Croft, 1998].

- Ikasketa automatikoan oinarritutako ereduak [Cao et al., 2006] edo *Learning to Rank* (LTR) hurbilketa: Ikasketa automatikoaren bidez trebatzen dira ereduak erreferentziazko rankingez osatutako entrenamendu-datuekin.

Eredu hauek guztiak *bag-of-words* delako (hitzen poltsa) paradigman oinarritzen dira, hau da, dokumentuen errepresentazioa hitzen bidez egiten da.

Berreskurapen-atazaren adibidera (*q=(ibilgailu, elektrikoen, teknologia)*) itzuliz, sar ditzagun bi aldagai prozesuan; kontsultaren eta edukien hizkuntzak. Eszenatoki sinpleenean biak hizkuntza bera lirateke

(euskara), baina bi hizkuntza horiek ezberdinak direneko eszenatokia (adibidez, euskara eta ingelesa) ere gerta daiteke. Orduan, informazioaren berreskurapen elebakarra dena eszenatoki eleaniztun batean hizkuntza arteko informazioren berreskurapen ataza bihurtzen da.

Hizkuntzen arteko langa gainditzeko estrategia desberdinak proposatzen dira itzultzen den elementuaren arabera: kontsulta itzultzea, dokumentua itzultzea edo biak. Egile gehienek kontsultak itzultzeko estrategia lantzen dute, batez ere, estrategia hau oso arina delako memoria- eta prozesu-eskakizunei dagokienez [Hull and Grefenstette, 1996]. Kontsultak motzak dira, dokumentu-bildumaren tamainarekin alderatuta.

Estrategia bakoitzarekin lortutako emaitzei erreparatuz gero, dokumentuak itzuliz eraginkortasun onena lortzen da. Arrazoia honakoa da; dokumentuek kontsultek baino testuinguru zabalagoa dute. Hori dela eta, itzulpen-hautagai zuzena aukeratzea errazagoa da kasu horretan. Horrez gain, dokumentu batean kontsulta batean baino esaldi edo adibide gehiago daude. Hitz bat gaizki itzuli daiteke esaldi batean, baina askoz zailagoa da esaldi guztietan gaizki itzultzea. Kontsultan, ordea, hitza ondo itzultzeko aukera bakarra dago. [Oard, 1998] lanean erakutsi dute itzulpenaren kalitatea eta berreskurapen-prozesuaren eraginkortasuna hobetzen direla bildumak itzultzen direnean. Beste ikerlari batzuek [McCarley, 1999, Chen and Gey, 2003] oraindik emaitza hobeak lortu dituzte kontsultak eta bildumak itzuliz. Ranking bana sortzen dituzte kontsultak eta bildumak abiapuntutzat hartuta. Ondoren, bi eratan lortutako rankingak konbinatzen dituzte.

Bestalde, itzulpena nola egingo den erabaki behar da. Itzulpena burutzeko teknikak lau multzo nagusitan banatu daitezke erabilitako ezagutza-iturriaren arabera:

- Itzulpen automatikoa (*Machine Translation* edo MT).
- Corpus paraleloak.
- Hiztegi elebidunak.
- Corpus konparagarriak.

Hiztegi elebidunetan eta corpus paraleloetan oinarritako tekniketarako familia estatistiko diferenteak proposatu dira literaturan; hizkuntza arteko eredu probabilistikoak, eta hizkuntza arteko hizkuntza-ereduak. Lehenengoa hiztegi elebidunekin konbinatzera zuzenduta dago, itzulpen anbiguoak tratatzeko eragile bereziak eskainiz. Bigarrenak corpus paralelo batetik

lortutako itzulpen-probabilitateak eredu formalago batean integratzen ditu [Hiemstra, 2001].

Bi eredu hauen eraginkortasuna erabilitako baliabide motaren araberakoa bada ere, kasu gehienetan corpus paraleloekin trebatutako hizkuntzen arteko hizkuntza-ereduek emaitza hobeak lortzen dituzte [Xu et al., 2001]. Halere, lehen esan bezala, eredu honek corpus paraleloak eskatzen ditu, eta baliabide hau oso urria izaten da hizkuntza bikote gehienetarako. Hiztegi elebidunak, ordea, askoz ugariagoak dira, baina zoritxarrez ez dituzte itzulpen-probabilitateak ematen. Hortaz, itzulpen anbiguoak tratatzeko bestelako metodoak inplementatu behar dira, hurrengo atalean azalduko ditugunak.

MT sistemak ere erabil daitezke CLIR ataza bat burutzeko. Estrategiarik sinplenean kutxa beltz bat bezala erabiliko litzateke MT sistema, kontsulta edo dokumentuak itzultzeko [Jones et al., 1999, Wu et al., 2008]. Beste egile batzuek MT sistema CLIR atazara egokitzeko teknikak ikertu dituzte [Magdy and Jones, 2014, Ture et al., 2012, Sokolov et al., 2014].

Egile batzuk itzulpen automatiko estatistikoko (*Statistical Machine Translation* edo SMT) ereduak baliatzen dituzte CLIR atazari heltzeko. [Azarbonyad et al., 2012] ikerlanean corpus paralelo batetik ateratako itzulpen-ezagutza *Learning to Rank* eredu batean erabiltzen dute CLIR sistema bat garatzeko. Kontsulta-eduki bikoteetarako ateratako hainbat ezaugarritatik trebatzen dute ranking-eredua. Hizkuntzen arteko ezaugarrien mapaketa egiteko corpus paralelo batetik lortutako itzulpen-probabilitateak baliatzen dituzte. Hiztegietan eta corpus konparagarrietan oinarritutako metodoekin alderatuta hobekuntza nabarmena lortzen dute.

Tesi-lan honetan galderen itzulpena, eta hori aurrera eramateko MT sistema eta corpus paralelorik gabeko metodoak aztertu ditugu, baliabide urriko hizkuntzen esparrua baita gure eszenatokia.

Hurrengo ataletan CLIR arloko literaturaren azterketa aurkeztuko dugu honako gaiei bereziki erreparatuz: kontsultak itzultzeko metodo orokorrak, corpus konparagarrien erabilera, kontsulta-saioen ustiapena, hiztegien eraikuntza pibotaje bidez, eta gai hauetan euskararen gainean egindako lana.

II.2 Kontsulta itzultzeko metodoak

Hiztegietan oinarritutako itzulpen-metodoen aldetik [Pirkola, 1998] artikulua klasiko bat da. Bertan itzulpen-hautapena lantze aldera eredu

probabilistikoetan **kontsulta egituratuak** integratzea proposatu zen. Kontsulta egituratuek kontsulta bateko esanahi berdineko hitzak eragile baten bidez (*syn*) multzokatzeko aukera ematen dute (ikusi adibidea II.1). CLIR sistema baten kasuan, jatorrizko hitz bereko itzulpen-hautagai guztiak *syn* multzo berean sartuko genituzke, adibidean ikusten dugun bezala:

Kontsulta	Galdera egituratua
"kutsatu odol epai"	"#syn(pollute impregnate infect) #syn(blood kinship) #syn(sentence judgment scratch cut)"
s_1="kutsatu" s_2="odol" s_3="epai"	tr(s_1)={"pollute","impregnate","infect"} tr(s_2)={"blood","kinship"} tr(s_3)={"sentence","judgment","scratch","cut"}

II.1 taula: Kontsultaren itzulpena galdera egituraruan.

Multzo bereko (*syn* operadoreaz adierazita) itzulpen guztiak hitz bera izango balira bezala tratatzen dira TF_j (terminoaren maiztasuna edo *term frequency* D_j dokumentuan) eta DF (dokumentu-maiztasuna edo *document frequency*, bildumako zenbat dokumentutan agertzen den terminoa) estatistikoak kalkulatzen direnean, berreskurapen-garaian. Jatorrizko s_i hitz bakoitzeko itzulpen-hautagaien multzoaren ($tr(s_i)$) TF eta DF balioak itzulpen-hautagaien TF eta DF balioak batuz kalkulatzen dira III.1 eta III.2 formuletan azaltzen den bezala.

$$TF_j(s_i) = \sum_{\{t \in tr(s_i)\}} TF_j(t) \tag{II.1}$$

$$DF(s_i) = | \bigcup_{\{t \in tr(s_i)\}} \{d | t \in d\}| \tag{II.2}$$

Esan daiteke *syn* operadorearen araberako TF eta DF estatistikoen kalkulua kontserbadorea dela, itzulpen-hautagaiei pisu handiegia eragitea galarazten baitzaie, zuzenak direlarik ere. Horrela, hautagairen bat hitz orokorra baldin bada (DF balio handikoa), multzoari, edo jatorrizko hitzari, garrantzia kenduko zaio kontsultako gainerako hitzen aldean. Adibidez, *"aurkitu"* hitzerako *"find"*, *"discover"*, *"be"*, eta *"feel"* ingelesezko itzulpenak lortzen ditugu hiztegi elebidunetik. *"be"* hitzaren DF balioa oso

altua da, *"aurkitu"* hitzaren DF balioaren jaitsiera nabarmen eraginez. Hautagai orokor hori itzulpen zuzena baldin bada, ez dago problemarik. Baina itzulpen okerra balitz, jatorrizko hitzak pisua galduko luke eduki adierazgarrien rankinga kalkulatzen denean. Itzulpen-hautagaien artean DF baxuena duena aukeratuko balitz, arriskua legoke itzulpen-hautagai hori okerra izateko, eta ondorioz, behar baino piso gehiago emateko jatorrizko hitzari. Okerreko aukeraketa honek kalkulu kontserbadorearen bidez lortzen denak baino jaitsiera handiagoa eragin dezake eduki adierazgarrien rankingean.

Ildo horretan, autore batzuek [Darwish and Oard, 2003] **kontsulta egituratu probabilistikoak** proposatzen dituzte, non itzulpen-hautagaiei pisuak ematen zaizkien. Era horretan TF eta DF estatistikoak pisu horien arabera kalkulatzen dira modu orekatuago baten. Arestian aipatutako adibidean *"be"* itzulpen-hautagaiari pisu baxuena esleitu ahal zitzaion, suposatuz probabilitate gutxieneko hautagaia dela.

Kontsulta egituratuak ez ezik, **agerkidetzetan oinarritutako metodoak** proposatzen dira [Monz and Dorr, 2005, Ballesteros and Croft, 1998, Gao et al., 2001] itzulpen-hautapenari aurre egiteko. Metodo hauek helburu-bilduma hizkuntza-eredu bat izango balitz bezala erabiltzen dute itzulpen-hautapena bideratzeko. Literaturan proposatutako algoritmoek helburu-bilduman elkartze-mailarik handiena duten hautagaiak aukeratzen dituzte itzulpen zuzen moduan. Elkartze-maila orokor hori kalkulatzeko estrategia ezberdinak landu dira literaturan [Monz and Dorr, 2005, Gao et al., 2001, 2002, Liu et al., 2005].

Itzulpenaren anbiguotasuna ez ezik, lehen aipatu bezala, badaude beste arazo batzuk kontsultaren itzulpen-prozesuan gertatzen direnak: hiztegitik kanpoko hitzen presentzia eta hitz anitzeko unitateen itzulpena. Hiztegitik kanpoko hitzen presentzia itzulpen-prozesuan erabilitako itzulpen-baliabidearen estaldurari lotutako problema bat da. Irtenbiderik erabiliena helburu-bilduman hiztegitik kanpoko hitzaren kognatu (*cognate* ingelesez, antzeko hitza) bat aurkitzea da (Adib., "*banku*" $\rightarrow$ "*bank*") [Knight and Graehl, 1997]. Kognatuak harrapatzeko antzekotasun ortografikoa kalkulatzeko neurriak aplikatzen dira. Hitz anitzeko unitateak itzultzeko lehen aipatutako agerkidetzetan oinarritutako metodoak [Monz and Dorr, 2005, Ballesteros and Croft, 1998, Gao et al., 2001] eta hitz anitzeko unitateen zerrendak erabiltzen dira [Ballesteros and Croft, 1997].

Tesiaren esparrutik kanpo egon arren, MT sistemetan oinarritutako kontsulta itzultzeko hainbat metodo proposatu dira azken urteotan. [Magdy and Jones, 2014] lanean CLIR atazaren testuinguruan MT prozesua arintzeko teknikak proposatzen dituzte. MT sistema entrenatzeko

corpusa aurreprozesatzen dute hitz funtzionalak (*stop-word* izenarekin ezagutzen direnak) kenduz eta hitzen erroak utziz lematizazioaren bitartez. Aurreprozesu hau eginez MT prozesua nabarmen arintzen dute berreskurapen-prozesuan eragin gabe. [Ture et al., 2012] lanean SCFG (*Synchronous Context-Free Grammar*) sistema baten bidez burutzen dute kontsultaren itzulpena. Kontsultako hitz bakoitzeko n itzulpen onenak eraikitzen dituzte *reading* (kontsulten itzulpen-hautagai) bakoitza tokenizatuz eta itzulpenen probabilitateak metatuz. N itzulpen onenak hartuz itzulpen onenean oinarritutako oinarri-lerroa hobetzen dute.

[Sokolov et al., 2014] lanean SMT sistema optimizatzen dute CLIR atazaren ebaluazioaren arabera. Horretarako SMTrako entrenamendu diskriminatzailerako teknikak eta *linked data*tik modu automatikoan bildutako adierazgarritasun-epaiak (ingelesez *relevance judgments*) erabiltzen dituzte. Proposatutako estrategiak itzulpen- eta berreskurapen-prozesuei lotutako informazioa integratzen du CLIRera zuzendutako eredu bakarrean. Itzulpenak corpus paraleloen bidez estimatzen dira. Ezaugarri lexikaletarako parametroen estimazioa adierazgarritasun-epaien arabera egiten da. Hieber and Riezler [2015] artikuluan berreskurapen-prozesuari lotutako ezaugarriekin aberasten dute SMT eredu bat. Ezaugarri hauek itzulpen-ezaugarriekin batera optimizatzen dira ranking-helburu batekiko.

Tesi honetan baliabide urriko hizkuntzetarako metodoak garatu nahi ditugunez, **hiztegi elebidunetan oinarritutako metodoak** landu ditugu. Artearen egoerako zenbait metodo [Monz and Dorr, 2005, Pirkola, 1998, Darwish and Oard, 2003] ebaluatu eta alderatu ditugu, beraiek konbinatzen dituzten metodo hibrido berriak eta bestelako egokitzapenak ere landuz. Euskara aintzat hartzen duten mota honetako lehenengo esperimentuak dira literaturan. Esperimentu hauek III. kapituluan azaltzen ditugu.

II.3 Corpus konparagarriak CLIRen

Zenbait egilek corpus konparagarrietan oinarritutako CLIR estrategiak proposatzen dituzte. Kontsulta itzultzeko prozesua hobetzeko baliatzen dituzte mota honetako corpusak.

[Sadat et al., 2003] artikuluan corpus konparagarrietatik erauzten dituzte kontsulta itzultzeko itzulpen-hautagaiak. Antzekotasun distribuzionala eta POS informazioaren araberako murriztapenak baliatuz erauzten dituzte itzulpen-hautagaiak. Itzulpen-hautagaien artetik amaraunean edo corpus batean maiztasun handiena duena aukeratzen da.

Talvensaari et al.-ek [2007] corpus konparagarrietatik ateratako itzulpen-ezagutza baliatzen dute kontsultak itzultzeko. Zehazki, antzekotasun-thesaurus modura erabiltzen dute beraiek eraikitako corpus konparagarri bat. Hiztegian oinarritutako itzulpen-sistema eta thesaurus-ean oinarritutakoa konbinatuz emaitzak hobeak lortzen dituzte banaka erabiliz baino.

Rahimi eta Shakery-k [2013] informazioaren berreskurapenean erabilitako hizkuntza-ereduen hurbilketa hartzen dute kontsulta itzultzeko. Lan honetan corpus konparagarria da itzulpenak lortzeko iturburu bakarra. Hurbilketaren hipotesia da itzulpen-baliokideek antzeko ekarpenak dituztela corpus konparagarritik lerrokatutako dokumentuen hizkuntza-ereduetan. Antzekotasuna jatorrizko eta helburu-hitzen ereduen arteko KL-dibergentzian oinarrituta dago. Berreskurapen elebakarraren %43.32ko eraginkortasuna lortzen dute, hiztegian oinarritutako oinarri-lerroa (*baseline*) gaindituz.

Corpus konparagarriak biltzeko prozesuaren inguruan hainbat artikulu aurki daitezke bibliografian. Baliabide hauek zenbait hizkuntzaren prozesamenduko atazatan ustiatzen dira. Artikulu gehienetan amarauna corpus-iturburu gisa baliatzea proposatzen da [Talvensaari et al., 2008, Klementiev and Roth, 2006].

Tesi-lan honetan kontsultaren itzulpen-prozesua hobetzeko ustiatu ditugu corpus konparagarriak. Zehazki, amarauneko bilatzaileen bidez bildutako testuinguru konparagarrietatik itzulpen-probabilitateak estimatzeko estrategia berri bat proposatzen dugu. [Sadat et al., 2003] eta [Talvensaari et al., 2007] lanetan bezala, hizkuntza arteko hitzen distantziak kalkulatzen ditugu corpus konparagarrietatik, itzulpen-probabilitateak estimatzeko soilik gure kasuan. Amaraunetik bildutako hizkuntza arteko testuinguru konparagarriak baliatzea izango litzateke lan horiekiko diferentzia nabarmenena. Halaber, amarauneko bilatzaileetatik bildutako testuinguruen adierazgarritasun linguistikoaren azterketa berri bat landu dugu. Esperimentu hauek IV. kapituluan azalduko ditugu.

II.4 Kontsulta-saioen informazioa ustiatzen

Azkeneko urteotan kontsulta-saioak ranking hobeak lortzeko baliatu daitezkeela defendatu dute egile batzuek [Carterette et al., 2011]. Egile hauen ustez erabiltzaileek kontsulta bat baino gehiago behar izaten dituzte beren informazio-beharra asetzeko. Informazio-behar bati lotutako prozesuak kontsulta bat baino gehiago hartzen dituela diote.

Horrela, hasierako kontsulta q_i sartu ondoren, erabiltzaileek kontsulta hau birformulatzeko q_r joera izaten dute, hainbat modutan:

- Zehaztea: Hasierako kontsulta zehaztea (adib., q_i=*"Eszitia"* q_r=*"Eszitia mitologian"*).
- Orokortzea: Hasierako kontsulta orokortzea (adib., q_i=*"ordenadore harra"* q_r=*"malware"*).
- Dibagazioa: Hasierako kontsultarekin zerikusia duen beste kontsulta bat formulatzea (adib., q_i=*"eguzki-orbanen aktibitatea"* q_r=*"eguzki orbanak eta lurrikarak"*).

Bilatzaileen *log* fitxategien gainean egindako zenbait azterketak frogatu dute erabiltzaileen erdiak birformulatzen dutela hasierako kontsulta. Adibidez, 1997ko eta 2001eko Excite datu-multzoetan erabiltzaileen %52k eta %45ak egina zituzten birformulazioak [Wolfram et al., 2001].

Kontsulta-saioetan oinarritutako informazioaren berreskurapena lantzeko helburuarekin abian jarri zuten 2010ean *Session Track*[1] delako ataza TREC lehiaketaren barruan. 2010eko edizioan [Kanoulas et al., 2010] bi kontsultako saioen ustiaketa aztertu zen. Lehiakideek birformulazioen berreskurapen-prozesua hobetu behar zuten hasierako kontsultak ustiatuz. Orokorrean, lehiaketan aurkeztutako sistemen eraginkortasuna hobea zen orokortze eta dibagazio motako birfomulazioak ustiatuz zehazte motakoak ustiatuz baino. Dena dela, partaide batek soilik lortu zuen hobekuntza estatistikoki esanguratsua, hasierako kontsultak ustiatu gabeko sistema baten gainean. Hurrengo edizioetarako saio luzeagoak eraiki ziren atazarako. 2011 eta 2012 urteetako edizioetan partaideen erdiak lortu zuten hobekuntza esangursatsua saioen informazio erabilita, eta 2013 eta 2014ko edizioetan partaide gehientsuek lortu zuten hobekuntza esanguratsua.

Kontsulta-saioek emandako informazioaren erabilera CLIR ataza hobetzeko oso artikulu gutxitan aztertu da. Jarraian literaturan aurkitu ditugun lanak aipatuko ditugu.

Gao et al-ek [2007], adibidez, kontsulta-logak baliatzen dituzte hizkuntza arteko kontsultak proposatzeko (*query suggestion*) atazan. Jatorrizko hizkuntzako kontsulta eta helburu-hizkuntzako kontsultaren arteko antzekotasuna kalkulatzeko metodo berri bat proposatzen dute. Metodo honek, itzulpen-informazioaz gain, termino agerkidetzak, kontsulta-logak eta kliken datuak ustiatzen ditu. Hizkuntza arteko kontsulta-antzekotasunerako eredu diskriminatzaile baten bidez ikasten da eskuz itzulitako kontsultetatik.

[1] http://trec.nist.gov/data/session.html

[Hu et al., 2008] lanean kliken datuetan ezkutuan dagoen ezagutzatik kontsulten itzulpenak erauzteko metodo bat proposatzen dute. Lehenengo urrats batean kliken datuetan URLen patroi elebidunak aurkitzen dituzte. Ondoren, erabiltzaileen klikek duten portaeraren araberako kontsulten itzulpen-bikoteak topatzen dituzte. Kontsulten itzulpenak kliken datuetako agerkidetzak ustiatuz finkatzen dituzte.

Tesi-lan honetan Carterette et al.-ek [2011] zehaztutako birformulazio-motak ustiatu ditugu kontsultaren itzulpena hobetzeko. Zehazki, birformulatutako kontsulta baten itzulpen-prozesuan aurreko kontsulten informazioa baliatzea aztertu dugu. Denbora errealean, erabiltzaileak kontsultak egin ahala, lortu daiteken informazioa da. Hortaz, ez ditugu behar lehendik bildutako kliken datuak eta kontsulta-logak [Gao et al., 2007, Hu et al., 2008] lanetako metodoetan bezala. Esperimentuak V. kapituluan azalduko ditugu.

II.5 Pibotaje bidezko hiztegi elebidunen sorkuntza

Hiztegi elebidunen sorkuntza oso prozesu luzea eta konplexua da, eskuz eginez gero. Baliabide urriko hizkuntzen kasuan bestelako hizkuntzetan baino hiztegi elebidun gutxiago daude eskuragarri. Hori dela eta, mota honetako hizkuntzek etekin handia atera diezaiekete hiztegien sorkuntza automatizatzeko metodoei.

Amaraunaren hazkundearen ondorioz Wikipedia [2] bezalako baliabideak lexiko elebidun berria erauzteko aukera ona dirudien arren [Erdmann et al., 2008], hiztegi baten eta entziklopedia baten artean alde handia dago. Wiktionary [3] lexikografiara zuzendutako etorkizun handiko baliabidea bada ere, baliabide urriko hizkuntzen estaldura mugatua eskaintzen du gaur egun.

Zabaldunke handiko hizkuntzak zubi edo pibote gisa erabiliz, hiztegi elebidunak sortzeko hainbat metodo proposatu dira literaturan. Pibotaje bidezko teknika hauek hiztegi elebidunak modu automatikoan sortzea ahalbidetzen dute. Ataza ez da hutsala, hitzen arteko itzulpen-prozesua ez baita guztiz trantsitiboa, hitz anbiguoen presentziak okerreko itzulpen-hautagaiak eragin baititzake, II.1 irudiko adibidean ikus dezakegunez.

Literaturan zenbait metodo proposatu dira itzulpen anbiguoen ondorioz sortutako okerreko itzulpenak kimatzeko. [Tanaka and Umemura, 1994] artikuluan pibotaje-prozesuan erabilitako hiztegien egituran soilik

[2] https://www.wikipedia.org/
[3] https://www.wiktionary.org/



II.1 irudia: D_{eu-en} eta D_{en-es} hiztegiak gurutzatuz eta *en* pibote erabiliz *"hegazkin"* hitzerako lortutako itzulpen-hautagaiak. Itzulpen okerrak ertz marradununeko borobiletan erakutsita.

oinarritutako metodo bat proposatzen dute, Alderantzizko Kontsulta (*Inverse Consultation* ingelesez) izenekoa. Alderantziko kontsulten bidez hitzen arteko distantzia semantikoa neurtzen dute konpartitzen dituzten pibote-hitzak kontatuz. Metodo honen hedapenak proposatu dira, klase semantikoak eta POS informazioa ere integratzen dituztenak [Bond et al., 2001, Bond and Ogura, 2008]. Sjöbergh eta al-ek [2005] definizioen konparaketaren ustiaketa aztertu zuten adiera bereko hitzak topatzeko. Zoritxarrez, klase semantikoak edo definizioak dituzten hiztegi elebidunak gutxi dira.

[István and Shoichi, 2009] artikuluan pibote-hizkuntzari dagokion WordNet [Miller, 1995] erabiltzea proposatzen dute. WordNet-ek eman dezakeen informazio semantikoa baliatzen dute pibotaje-prozesuaren doitasuna hobetzeko. Soderland et al. [2009] lanean pibote gisa hizkuntza bat baino gehiago batera erabiltzea aztertu zuten. Beraien hipotesia da zenbat eta pibote-hizkuntza gehiago erabili orduan eta ebidentzia gehiago izango dituztela itzulpen-baliokideak topatzeko.

[Tsunakawa et al., 2008] artikuluan corpus paraleloak erabili zituzten itzulpen-baliokide hautagaien arteko probabilitateak estimatzeko. Gutxieneko probabilitate batera iristen direnak hiztegian sartzeko moduko itzulpen zuzentzat hartzen dira.

Corpus paraleloak urriak dira planteatu dugun lan-eszenatokian, eta alternatiba moduan egile batzuk [Kaji et al., 2008, Gamallo and Pichel, 2010] corpus konparagarrietan oinarritutako metodoak proposatu dituzte. Corpus konparagarrietatik estimatutako hizkuntza arteko antzekotasun distribuzionala baliatzen dute okerreko itzulpen-baliokideak baztertzeko. [Shezaf and Rappoport, 2010] artikuluan antzekotasun distribuzionalaren aldaera bat proposatzen dute, haien esperimentuetan Alderantzizko Kontsultaren metodoa baino emaitzak hobeak ematen dituena.

[Wushouer et al., 2013] artikuluan familia bereko hizkuntzetarako heuristikoetan oinarritutako estrategia bat proposatzen dute. Probabilitatea, distantzia semantikoa eta antzekotasun ortografikoa erabiltzen dira heuristiko gisa pibotaje bidez lortutako itzulpen-hautagaiak kimatzeko.

Tesi-lan honetan hiztegien egituran oinarritutako metodoak [Tanaka and Umemura, 1994] eta corpus konparagarrietan oinarritakoak [Kaji et al., 2008, Gamallo and Pichel, 2010] konbinatzeko zenbait esperimentu eta horren gaineko ebaluazio sakonak egin ditugu, VI. kapituluan azalduko ditugunak.

II.6 IR eta CLIR euskararen gainean

Euskararen inguruan zenbait ikerketa burutu dira informazioaren berreskurapenaren alorrean. Jarraian esanguratsuenak aipatuko ditugu.

[Leturia et al., 2007] artikuluan EusBila aurkeztu zuten, lematizazioa eta hizkuntza-detekzioa inplementatzen zituen euskararako web-bilatzailea. EusBila bilatzaile komertzialen APIetan oinarrituta zegoen. Lematizazioa eta hizkuntza-detekzioa inplementatzeko kontsultaren hedapen morfologikoa eta hizkuntza-hitzak erabiltzen ziren hurrenez hurren. Bi teknika hauen ebaluazio sakona [Leturia et al., 2013] artikuluan azaltzen da.

Galdera-erantzun (ingelesez *Question Answering* edo QA) sistemak informazio soila berreskuratzeaz baino harago doaz. Informazio-beharra galdera baten bidez adierazten da, informazio adierazgarria galderari dagokion erantzuna delarik. Euskararako *Ihardetsi* izeneko galdera-erantzun sistema azaltzen da [Alegria et al., 2009] artikuluan. Sistemak hiru modulu ditu: galdera aztertzeko modulua, pasarteen berreskurapenerako modulua, eta erantzunen erauzlea. CLEF 2008ko[4] *Basque to Basque monolingual QA* izeneko atazan %13ko zehaztasuna lortu zuen sistemak [Ansa et al., 2008].

[4] http://clef.isti.cnr.it/2008.html

Ihardetsi sistemaren bertsio berriago bat prestatu zen CLEF 2009 eta 2010eko ResPubliQA[5] [Agirre et al., 2009, 2010] atazetarako. Atazaren ariketako bat hizkuntza arteko QA zen. Galdera aurreprozesatzeko Ihardetsiren modulua erabili zen. Galderaren itzulpena hiztegietan oinarritutako algoritmo bat erabiliz egin zen. Bildumako dokumentuak WordNet baliatuz hedatu ziren. 2010ko edizioan 0,30ko MRRa (*Mean Reciprocal Rank*) lortu zuen aurkeztutako sistemak (sistema elebakarraren eraginkortasunaren %50). [Otegi et al., 2015] lanean ezagutzan oinarritutako antzekotasun semantikorako teknikak baliatzen dituzte, kontsulta eta dokumentu-bildumako hiztegien arteko dibergentziei aurre egiteko. Euskararako zientzia eta teknologia domeinuko galdera-erantzun atazan oinarri-lerroko emaitzak gainditzen dituzte, %3,16an eta %3,72an erantzun zehatzak eta pasarteak berreskuratzeko.

Tesi honetan aurkezten dugun CLIR hurbilketaren baliabide giltzarria da hiztegi elebiduna. Izan ere, bere sorkuntzarako pibotaje bidezko metodo bat aurkezten dugu. Komeni da aipatzea lexiko elebidunen sorkuntzaren inguruan euskara aintzat hartzen duten zenbait ikerlan egin direla iraganean. [Gurrutxaga et al., 2006] lanean corpus paraleloetatik terminologia elebiduna erauzteko teknikak ikertu ziren. Erauzketarako proposatutako estrategiak hiru urrats nagusi ditu: 1) terminologia erauztea hizkuntza bakoitzean, 2) itzulpen-unitate bakoitzeko itzulpen-bikote hautagaiak sortzea, eta 3) itzulpen-unitate onenak kognatuen detekzioaz eta elkartze-neurrien bidez aukeratzea. *Itzulterm*[6] izeneko zerbitzu irekia da ikerlan horren emaitza. [Saralegi et al., 2008] lanean terminologia elebiduna corpus konparagarrietatik erauzteko teknikak landu ziren. Testuinguru-antzekotasuna eta kognatuen detekzioa baliatu ziren corpus konparagarrietatik ateratako itzulpen-bikoteak identifikatzeko.

II.7 Ebaluazioa

IR sistemen eraginkortasuna ebaluatzeko *Crandfield* [Cleverdon, 1967] izeneko metodologia edo ingurune estandarra erabiltzen da. Ingurune horrek honako osagaiak ditu: eduki-bilduma bat, gai-sorta bat, eta adierazgarritasun-epaiak. Atazan zenbat eta dokumentu adierazgarri gehiago itzuli rankingean, orduan eta arrakasta handiagoz beteko litzateke.

Literaturan hainbat neurri proposatu dira IR sistema baten eraginkortasuna estimatzeko. Doitasuna (*Precision*) eta estaldura (*Recall*)

[5] http://nlp.uned.es/clef-qa/repository/resPubliQA.php
[6] http://itzulterm.elhuyar.eus/

dira IR eszenatoki batean erabilitako neurri oinarrizkoenak. Doitasuna (P) IR sistema batek itzulitako dokumentu adierazgarrien kopurua zati itzulitako dokumentu guztien kopurua da (Ikusi II.3 formula). Estaldura (R) sistemak itzulitako dokumentu adierazgarrien kopurua zati bildumako dokumentu adierazgarri guztien kopurua da (Ikusi III.4 formula). F puntuazioa (*F score*) doitasuna eta estaldura bateratzen dituen neurria da (Ikusi II.5 formula). β parametroaren bidez doitasunari eta estaldurari ematen zaien pisua zehazten da. $\beta = 1$ pisu berdina ematen zaie biei, $\beta = 2$ pisu gehiago doitasunari, eta $\beta = 0.5$ pisu gehiago estaldurari.

$$P(N) = \frac{\sum_{i=1}^{N} rel(i)}{N} \tag{II.3}$$

$$R(N) = \frac{\sum_{i=1}^{N} rel(i)}{R} \tag{II.4}$$

$$F_\beta = (1 + \beta^2) \cdot \frac{P(N) \cdot R(N)}{(\beta^2 \cdot P(N)) + R(R)} \tag{II.5}$$

Badaude bestelako neurri osatuagoak sistemak itzulitako rankingean dokumentu adierazgarriek rankingean dituzten posizioei erreparatzen dietenak. Horien artetik, *MAP* (*Mean Average Precision*) eta *DCG* (*Discounted Cumulative Gain*) dira IRko esperimentuetan erabilienak.

MAP *AP*an (*non-interpolated average precision*) dago oinarrituta:

$$AP = \frac{\sum_{i=1}^{N} P(i) \cdot rel(i)}{R} \tag{II.6}$$

Sistemak itzulitako dokumentu kopurua da N, $rel(i)$ rankingeko i. dokumentuak duen adierazgarritasun-maila (1 edo 0) da, $P(i)$ i. posizioan neurtutako doitasuna da, eta R kontsultarekiko bilduman dauden dokumentu adierazgarrien kopurua da. *AP*k ranking posizio guztietako doitasunak kalkulatu eta haien batezbestekoa hartzen du. *MAP* sistema ebaluatzeko erabili nahi diren kontsulta guztien *AP*en batezbestekoa da.

MAP IRko ikerketa gehienetan neurririk erabiliena izan da duela gutxi arte. Azkeneko urteotan ikerlari batzuek zalantzan jarri dituzte epaiketa boolearretan oinarritutako ebaluazioak eta neurriak. Ildo horretatik Jarvelin eta Kekalainen-ek [2000] *CG* (*Cumulative Gain*) eta haren aldaera batzuk

proposatu zituzten. Sistemak itzulitako lehenengo dokumentuei dagozkien adierazgarritasun-mailen ($rel(i)$) batura da CG, adierazgarritasun-maila bi baliotik gorako eskala batean egon daitekeelarik.

$$CG = \sum_{i=1}^{N} rel(i) \tag{II.7}$$

CGk ez ditu kontuan hartzen rankingeko dokumentuen posizioak. Hau problema bat da erabiltzailearen ikuspuntua ez delako ondo jasotzen. Sistema batek, dokumentu adierazgarriak lehenengo posizioetan itzultzen baditu, eraginkortasun hobea dauka erabiltzailearen ikuspuntutik. Hori dela eta, DCG aldaera proposatzen da, non dokumentuen adierazgarritasun-mailak zigortzen diren posizio atzeragoko dokumentuetakoak izanez gero:

$$DCG = \sum_{i=1}^{N} \frac{rel(i)}{log_b(i)} \tag{II.8}$$

Tesi-lan honetan MAP eta DCG neurriak erabili ditugu III. IV. eta V. kapituluetan azaldutako CLIR esperimentuetan. VI. kapituluan aurkeztutako pibotaje bidezko hiztegien eraikuntzarako metodoen ebaluazioan doitasuna, estaldura, eta F puntuazioa neurriak baliatu ditugu.

II.8 Erabilitako baliabideak

Esperimentuetan erabilitako baliabideak azalduko ditugu kapitulu honetan.

Indri tresna

Tesi-lan honetako III. IV. eta V. kapituluetan aurkeztutako esperimentuetan Indri tresnak eskaintzen duen Indri berreskurapen-algoritmoa [Zhai and Lafferty, 2001] erabili zen izen bereko tresnaren[7] bidez. Algoritmoa kontsulta itzulitakoan aplikatzen da dokumentu adierazgarrien rankinga

[7] https://www.lemurproject.org/indri.php

kalkulatzeko. Indri algoritmoa hizkuntza-ereduen eta inferentzia-sareen berreskurapen-frameworken konbinazio bat da.

V. kapituluko esperimentuan, non Clueweb bilduma erabiltzen den, Indri-ren *Batch Query service*[8] izeneko zerbitzua erabili zen. Web-zerbitzu honek Clueweb bilduma Indri algoritmoaren bidez kontsultatzeko aukera ematen du.

CLEF lehiaketako datu-multzoak

III. eta IV. kapituluetako esperimentuetan CLEF lehiaketaren barruan prestatutako datu-multzoak erabili dira. LA Times 1994 (113.005 dokumentu) eta Glasgow Herald 1995 (56.472 dokumentu) ingelesezko testu-bildumak erabili ziren. CLEF 2001eko gai-multzoa (41-90 tarteari dagokiona) IR sistemen parametroak doitzeko eta CLEF 2005ko eta 2006ko gai-multzoak (251-300 eta 301-350 tarteei dagozkionak) IR sistemak ebaluatzeko erabili ziren. Gai guztiak euskarara itzuli ziren euskara-ingelesa hizkuntza arteko berreskurapen-ataza ebaluatu ahal izateko. Gai batek honelako eremuak ditu:

- Izenburu labur bat (*title*), erabiltzaileak formulatzen dituen kontsulten modukoa.
- Informazio-beharraren deskribapen labur bat (*desc*), esaldi bakarrekoa.
- Informazio-beharraren deskribapen sakonago bat (*narr*), nahi diren dokumentuak zehatzago deskribatuz.

CLEF AdHoc-News Test Suites (2004-2008) - Evaluation Package izeneko ELRAko paketean[9] aurkitu ditzakegu arestian aipatutako bildumak eta gaiak (euskarazkoak izan ezik).

TREC Session Track 2010eko datu-multzoa

TREC 2010 Session track atazarako prestatutako kontsulta-saioak[10] ingelesetik euskarara itzuli ziren. Guztira bi kontsultaz osatutako 150 kontsulta-saio dira. Kontsultak Clueweb09[Callan et al., 2009] bildumari dagozkio. Kontsulta-saio hauek V. kapituluko esperimentuetan erabili dira.

[8] http://lemurproject.org/clueweb09/
[9] http://catalog.elra.info/retd/product_info.php?products_id=949
[10] http://trec.nist.gov/data/session10.html

<**title**> Impact of foreign textile imports on U.S. textile industry <**desc**> Document must report on how the importation of foreign textiles or textile products has influenced or impacted on the U.S. Textile industry. <**narr**> The impact can be positive or negative or qualitative. It may include the expansion or shrinkage of markets or manufacturing volume or an influence on the methods or strategies of the U.S. textile industry. "Textile industry"includes the production or purchase of raw materials; basic processing techniques such as dyeing, spinning, knitting, or weaving; the manufacture and marketing of finished goods; and also research in the textile field.

II.2 taula: CLEF datu-multzuko gai baten adibidea.

SemCor 1.6

Semantikoki etiketatutako testu-bilduma bat da SemCor[11]. Eskuzko anotazioa WordNet 1.6 baliabidearen arabera eginda dago SemCor bertsio honetan. IV. kapituluan erabilitako baliabidea da, web bilatzaileen bidez bildutako testuinguruen adierazgarritasun linguistikoa neurtzeko.

Corpus konparagarriak

Pibotaje bidezko hiztegien sorkuntzako esperimentuetarako (VI. kapituluan aurkezten direnak) euskara-gaztelania corpus konparagarri bat eraiki zen. Berria eta Diario Vasco egunkari digitalak iturburu gisa hartuta bildu genuen corpusa. Konparagarritasun-maila handia lortze aldera, denbora tarte bereko (2006-2010) albisteak soilik hartu ziren. Guztira, 149.892 eta 306.925 albiste bildu ziren Berria eta Diario Vascotik hurrenez hurren.

[11] http://web.eecs.umich.edu/~mihalcea/downloads.html#semcor

III. KAPITULUA

Kontsultak itzultzeko hiztegietan oinarritutako metodoen azterketa eta konparaketa

[Saralegi and Lopez de Lacalle, 2009] artikuluan kontsultak itzultzeko bi teknikaren azterketa eta konparaketa azaltzen dira. Itzulpen-hautagaiak hiztegi elektroniko batetik eskuratzen dira. Itzulpen anbiguoak ebazteko bi metodo aztertu eta alderatu dira: Pirkolaren metodoa [Pirkola, 1998], eta agerkidetzan oinarritutako algoritmo iteratibo bat [Monz and Dorr, 2005]. Bien metodo hibrido bat ere aztertu da. [Saralegi and Lopez de Lacalle, 2010a] artikuluan hiztegien bidezko itzulpen-estrategian gertatzen diren erroreak aztertzen dira. Errore bakoitzak berreskurapen-prozesuaren eraginkortasunean duen eragina aztertu eta erroreak berak tratatzeko metodoak proposatu eta ebaluatzen dira.

- Xabier Saralegi and Maddalen Lopez de Lacalle. Comparing different approaches to treat translation ambiguity in CLIR: Structured queries vs. target co-occurrence based selection. In *2009 20th International Workshop on Database and Expert Systems Application*, pages 398–404. IEEE, 2009

- Xabier Saralegi and Maddalen Lopez de Lacalle. Dictionary and Monolingual Corpus-based Query Translation for Basque-English CLIR. In *Proceedings of the Seventh International Conference on Language Resources and Evaluation (LREC'10)*, 2010a

III.1 Comparing different approaches to treat translation ambiguity in CLIR: Structured queries vs. target co-occurrence based selection

Comparing different approaches to treat Translation Ambiguity in CLIR: Structured Queries vs. Target Co-occurrence Based Selection

X. Saralegi, M. Lopez de Lacalle
Elhuyar R&D
Zelai Haundi kalea, 3.
Osinalde Industrialdea, 20170 Usurbil. Basque Country
{xabiers, maddalen}@elhuyar.com

Two main problems in Cross-language Information Retrieval are translation selection and the treatment of out-of-vocabulary terms. In this paper, we will be focusing on the problem concerning the translation selection. Structured queries and target co-occurrence-based methods seem to be the most appropriate approaches when parallel corpora are not available. However, there is no comparative study. In this paper we compare the results obtained using each of the aforementioned methods, we specify the weaknesses of each method, and finally we propose a hybrid method to combine both. In terms of mean average precision, results for Basque-English cross-lingual retrieval show that structured queries are the best approach both with long queries and short queries.

III.1.1 Introduccion

The importance of Cross-language Information Retrieval (CLIR) nowadays is patent in multiple contexts. In fact, communication is more global, and the access to multilingual information is more and more widespread within this globalized society. However, unless some *lingua franca* is established in specific geographic areas and discourse communities, it is still necessary to facilitate access in the native speaker's language.

In our case, we are developing a CLIR system to allow Basque speakers to access texts in other languages. Since Basque has relatively few speakers (about 1,000,000) CLIR is an attractive technology for providing Basque speakers access to those global contexts. Even though lately most extended CLIR approaches are based on parallel corpora, Basque is a less resourced language, and that is why we have to turn our gaze to parallel corpora free approaches. The work presented in this paper compares the performance of

two methods for the translation selection problem which do not require the use of parallel corpora. In addition, we have also designed and evaluated a hybrid algorithm that combines both methods in a simple way.

The CLIR topic and its problematic are introduced in the next section. Section III.1.3 addresses the specific problem of the translation selection. The two approaches proposed for dealing with the translation ambiguity are presented in subsections III.1.3.1 and III.1.3.2 Following (subsection III.1.3.3), we propose a simple combination of both methods. Then, in section III.1.4 we evaluate and compare the different methods for the Basque-English pair, in terms of MAP (Mean Average Precision) and using CLEF (Cross Language Evaluation Forum) collections and topics. Finally, we present some conclusions and future works in section III.1.5.

III.1.2 The translation methods for CLIR

CLIR does not differ too much from Information Retrieval (IR) and only the language barrier requires specific techniques, which are mainly focused on the translation process. The different approaches differ essentially with respect to which available information is translated (queries, documents or both), and in the method used to carry out the translation.

There are three strategies for tackling a cross-language scenario for IR proposes: a) translating the query into the language of the target collection, b) translating the collection into the language of the source query, and c) translating both into an interlingua. The majority of the authors have focused on translating queries mainly due to the lower requirements of memory and processing resources [Hull and Grefenstette, 1996]. However, richer context information is useful for dealing with disambiguation problems, and it has been proved that the quality of the translation and retrieval performance improve when the collection is translated [Oard, 1998]. Translating both queries and documents into an interlingua provides even better results [McCarley, 1999, Chen and Gey, 2003].

As for the translation methods, they can be classified into three main groups: Machine Translation (MT)-based, parallel corpus-based, and bilingual Machine Readable Dictionary (MRD)-based. In general, authors point out that using MT systems is not adequate for several reasons: the quality of precision is often poor and the system requires syntactically well formed sentences, while in IR systems the queries are often sequences of words [Hull and Grefenstette, 1996].

The corpus-based approach implies the use of parallel (and also

comparable) corpora to train statistical translation models [Hiemstra, 2001]. The main problem is the need for large corpora. The available parallel corpora are usually scarce, especially for minority languages and restricted domains. The advantage of this approach is that the translation ambiguity can be solved by translating the queries by statistical translation models. Comparable corpora, which are easier to obtain, can be used in order to improve the term coverage [Talvensaari, 2008].

Lastly, MRD-based translation guarantees enough recall but does not solve the translation ambiguity problem. Thus, two main problems arise when using dictionaries to translate: ambiguities in the translation, and also the presence of some out-of-vocabulary terms. Many papers have been published about these two issues when queries are translated [Knight and Graehl, 1997, Ballesteros and Croft, 1998, Gao et al., 2001, Monz and Dorr, 2005].

Among the displayed alternatives, the MRD-based approach has been explored, because of the lack of sufficient parallel corpora for Basque, and because we assume that this situation will be similar for other minority languages. Specifically, we have concentrated on testing two methods to deal with translation ambiguity: structured queries and co-occurrence-based methods. Although the influence level of the errors derived from using dictionaries depends on the quality of the resources used and the tasks done, Qu et al. [2000] point out that the wrong translation selection is the most frequent error in an MT-Based translation process. So, we assume that this error distribution will be similar in MRD-based systems.

We have translated only the queries in our experiments. The reasons for this decision are, on the one hand, that the methods we want to analyze have been tested in such an experimental setup. On the other hand, the results of this research will be used for the development of a commercial web searcher, and so the processing and memory consumption are also important factors.

III.1.3 Selecting the correct translation from a dictionary

In order to deal with the translation selection problem affecting queries derived from bilingual dictionaries (MRD), there are several methods proposed in the literature. An extended approach to tackle the problem of ambiguity is by using structured queries, also called Pirkola's method [Pirkola, 1998]. All the translation candidates are treated as a unique token in the calculation of relevances estimating term frequency (TF) and document frequency (DF) statistics separately. Thus, the disambiguation takes place implicitly during the retrieval instead of during the query

formulation. A more advanced variant of this algorithm, known as probabilistic structured queries [Darwish and Oard, 2003], allows to weight the different translation candidates offering better performance.

Other approaches to tackle ambiguity in query translation are based on exploiting statistically monolingual corpora in the target language. Specifically, these methods try to select the most probable translation of the query, choosing the set of translation candidates that most often co-occur in the target collection. The algorithms differ in the way the global association is calculated and in the translation unit used (e.g., word, noun phrases...).

In [Ballesteros and Croft, 1998] a co-occurrence method and a technique using parallel corpora are compared, leading to the conclusion that the co-occurrence method is significantly better at disambiguating than the parallel corpus-based technique. In [Gao et al., 2002], the basic co-occurrence is extended by adding a decaying factor that takes into account the distance between the terms when calculating their Mutual Information. Hence, if the distance between the terms increases, the decaying factor does too. In the basic co-occurrence model, when calculating the coherence for a translation candidate, not only are the selected translations taken into account, but also those which are not selected. Liu et al. [2005] propose a statistical model called "maximum coherence model" that estimates all the translations of all query terms simultaneously and these translations maximize the overall coherence of the query. In this case, the coherence of a translation candidate is independent from the selection of other query terms translations. This new model is compared with a co-occurrence model similar to the one proposed by [Gao et al., 2001], which takes into account all the translations of the rest of words in the query. The model that they propose performs substantially better, but it is computationally very expensive. Jang et al. [1999] propose a co-occurrence method that only takes into account the consecutive terms when calculating the mutual information. Monz and Dorr [2005] introduce an iterative co-occurrence method which combines term association measures with an iterative machine learning approach based on expectation maximization.

This work compares two alternatives proposed in the literature which do not require parallel corpora. The unique resources used are a bilingual MRD and a corpus in the target language for the co-occurrence-based method, which makes them suitable for less resourced languages like Basque. We have chosen a specific method for each approach: Pirkola's method, and a co-occurrence-based method. Among all the co-occurrence-based algorithms we have chosen the Monz and Dorr's algorithm assuming that being iterative yields better estimations, although we do not have any references that

confirm this. In addition, we have designed an algorithm that combines both approaches. In this last case, we have used Darwish and Oard's probabilistic structured queries as a framework and Monz and Dorr's algorithm to estimate the weights of the translation candidates.

III.1.3.1 Dealing with ambiguous translations using Structured Queries

The #syn operator of structured queries is a suitable technique for dealing with ambiguous translations because among other things it is fast, offers good results and does not need external resources such as parallel corpora. The basic idea is to group together the translation candidates of a source word, thus making a set and treating them as if they were a single word in the target collection [Pirkola, 1998]. Hence, when estimating the term frequency (TF) and document frequency (DF) statistics for query terms, the occurrences of all the words in the set are counted as occurrences of the same word. If we assume that s_i is a query term, D_k is a document term, d is a document and $T(s_i)$ is the set of translation candidate terms of s_i given by the MRD.

$$TF_j(s_i) = \sum_{\{k|D_k \in T(s_i)\}} TF_j(D_k) \tag{III.1}$$

$$DF(s_i) = |\bigcup_{\{k|\in D_k \in T(s_i)\}} \{d|D_k \in d\}| \tag{III.2}$$

where $TF_j(s_i)$ is the term frequency of s_i in document j, and $DF(s_i)$ is the number of document that contain s_i.

If the translation candidates are correct or semantically related, the effect is an expansion of the query. The problem arises especially when wrong translations that are common words occur, because DF of the #syn set can take high scores and the correct translation loses weight in the retrieval process. TF statistics can also be altered when wrong translations appear in the retrieval documents. But the probability that many wrong translations occur in retrieved documents is low. That is what we call retrieval time translation selection.

In order to test this method in development experiments, we have prepared a list of Basque topics translated from the English ones belonging to the CLEF 2001 edition (41-90), and the LA Times 94 collection and the corresponding relevance judgments, which will be explained more fully in section III.1.4. First, we have calculated the MAP for different numbers of translation candidates from the MRD (figure III.1), because a high coverage

of translations and the precision level of the MRD affects the performance of this method [Larkey et al., 2002]. Moreover, the translation equivalents of source words are usually ordered by frequency use in a MRD. Therefore, we can exploit that order to prune the least probable translations in the interests of query translation precision.



Figure III.1: MAP values for different numbers of translation-candidates.

In the graph (see figure III.1), we can see how the number of translation candidates from the MRD accepted for each source word affects the MAP. MAP curves are similar for both titles and titles+descriptions queries. They have local maximum in near points but the maximum global is reached by taking more candidates with the title+description set. The maximum MAP is achieved by taking the first three candidates for short queries, and the twelve first candidates for the long queries. This seems logical because there are more context words that can improve the retrieval-time disambiguation.

III.1.3.2 Target co-occurrence-based selection

As explained above, structured queries do not really do translation selection, and translations and statistics (TF and DF) can be wrong in some cases and decrease the retrieval performance. An alternative to executing the translation selection without using parallel corpora is to guide the selection

by using statistics of the co-occurrence of the translation candidates in the target collection. The basic idea is to choose the ones that co-occur more frequently, assuming that the correct translation equivalents of query terms are more likely to appear together in target document collection than incorrect translation equivalents. The main problem of this idea is to compute that global correlation in an efficient way, because the maximization problem is *NP-hard*.

The algorithm we have used for the translation selection is the one introduced by Monz and Dorr [2005]. Basically, it selects the translation candidates combination which maximizes the global coherence of the translated query by means of an *EM* (Expectation Maximization) type algorithm.

Initially, all the translation candidates are equally likely. Assuming that t is a translation candidate for a query term s_i given by the MRD, then:

Initialization step:

$$w_T^0(t|s_i) = \frac{1}{|tr(s_i)|} \tag{III.3}$$

In the iteration step, each translation candidate is iteratively updated using the weights of the rest of the candidates and the weight of the link connecting them. Iteration step:

$$w_T^n(t|s_i) = w_T^{n-1}(t|s_i) + \sum_{t' \in inlink(t)} w_L(t,t') \cdot w_T(t'|s_i) \tag{III.4}$$

where *inlink(t)* is the set of translation candidates that are linked to t.

After re-computing each term weight they are normalized.

Normalization step:

$$w_L^n(t|s_i) = \frac{w_L^n(t|s_i)}{\sum_{m=1}^{|tr(s_i)|} w_L^n(t_{i,m}|s_i)} \tag{III.5}$$

The iteration stops when the variations of the term weights become smaller than a predefined threshold.

There are different association measures to compute the association strength between two terms ($w_L(t,t')$). We experimented with Mutual Information and Log Likelihood Ratio, and obtained the best results with the second one. That is the measure we use in the evaluation.

The question is whether by choosing the best translation of each query term we obtain a better MAP than grouping all the translation candidates by means of structured queries. As mentioned before, although in the structured

queries some weights and translations can be wrong, an expansion that can benefit the MAP is also produced. For example, for the Basque query *"gene gaitz"*, when we select the best English translation *"gene disease"* and run it, we obtain an AP of 0.5046. However, when all the translation candidates given by the MRD are put in sets with the #syn operator, *gene #syn(harm disease flaw ailment hurt malady defect difficult)*, even if we incorporate incorrect translations, we get a greater AP value, 0.5548. So, in this example it is clear that the noise expanded translation gives a higher AP score than the best translation. Nevertheless, for the Basque query *"gose greba"* we construct a translated query like *#syn(hunger yearning desire famine urge ravenous craving famished hungry) #syn(#1(work stoppage) strike walkout)* obtaining an AP of 0.0741. Whereas if we choose the best translation manually, we get the query *"hunger strike"* and obtain an AP of 0.6743. Looking at this example, it seems that our co-occurrence method could provide a margin for improving the MAP compared with structured queries when query terms have many incorrect translation candidates. In order to estimate whether this case is general, a lexicographer manually disambiguated some Basque queries (built from 41-90 CLEF queries) translated into English by an MRD. We preprocessed the queries by keeping only the lemmas of content words and then translated them using the MRD. The work by the lexicographer was to select the best translation candidate for each source term of the queries (example on table III.1).

Then, we calculated the MAP by processing Basque queries (table III.2) (titles and titles+description separately) for the different translation methods including the manual-based one. The MAP results show the MAP obtained by manual disambiguation does not reach that obtained using structured queries. So it seems that there is no margin for improvement for the co-occurrences-based method. However, the co-occurrences-based method outperforms structured queries when we are dealing with short queries. It even outperforms the theoretical threshold marked by the manual disambiguation. It could be due to a more statistical selection of short queries, more adequate for relevances in that collection.

III.1.3.3 Combining structured queries and co-occurrence-based algorithm

We think that we could take advantage of both techniques. Structured queries contribute to the translation less restrictiveness and query expansion in the retrieval phase, and the co-ocurrence-based method contributes translation selection and weighting capability. To do this, we propose that probabilistic structures queries [Darwish and Oard, 2003] be used, and

English query	Tainted-Blood Trial
Basque query	kutsatutako odolaren epaia
English query	Tainted-Blood Trial
Basque query (content words)	kutsatu odol epai
Structured translation into English	#syn(pollute impregnate infect) #syn(blood kinship) #syn(sentence crest judgment ridge notch scratch mark cut incision)
Best manual translation	#syn(pollute impregnate infect) #syn(blood kinship) #syn(sentence crest judgment ridge notch scratch mark cut incision)
Best manual translations	#syn(pollute infect) blood sentence #syn(pollute ~~impregnate~~ infect) #syn(blood ~~kinship~~) #syn(sentence ~~crest~~ ~~judgment~~ ~~ridge~~ ~~notch~~ ~~scratch~~ ~~mark~~ ~~cut~~ ~~incision~~)

Table III.1: Selecting the best translation of the structured query.

Translation method	MAP	
	Titles	Titles + description
English monolingual	0.4639	0.4912
Structured query (3 and 13 candidates)	0.3510	0.4274
Structured query (all candidates)	0.3352	0.4200
Best manual translation	0.3218	0.4127
Concurrences-based	0.3564	0.3908
Best manual translations	0.3471	0.4308
Probabilistic structured query	0.3568	0.4268
Probabilistic structured query+threshold (0.8)	0.3594	0.4249

Table III.2: MAP results for 41-90 topics.

the weights be estimated according to Monz and Dorr's algorithm. Thus, assuming $w_L(D_k|s_i)$ as the weight for the translation candidate D_k of a term s_i of a source query s we estimate TF and DF in this way:

$$TF_j(s_i) = \sum_{\{k|D_k \in T(s_i)\}} TF_j(D_k) \cdot w_L(D_k|s_i) \quad \text{(III.6)}$$

$$DF_j(s_i) = \sum_{\{k|D_k \in T(s_i)\}} DF_j(D_k) \cdot w_L(D_k|s_i) \quad \text{(III.7)}$$

As we did in subsection III.1.3.2, in order to estimate the possible improvement margin of this method, a lexicographer manually removed the wrong translations of the development queries, while maintaining only the correct ones (see table III.1). We maintained all the possible candidates since this method is capable of selecting more than one candidate. Thus, for the Basque query *"gene gaitz"* (*"gene disease"* in English) we obtained a query (*gene #syn(disease ailment malady)*) achieving an AP of 0.5946. A higher score than the one achieved taking all candidates. However, contrary to what we expected, the MAP for 41-90 topics is not much higher than that achieved without doing any kind of selection (although pruning some translations of the MRD can be considered to be a general disambiguation method) for long queries and for short queries it is even worse (see table III.2). Therefore, better quality in the translations does not seem to imply a big improvement in MAP. A further analysis will be conducted in the next section.

III.1.4 Evaluation and discussion

We evaluated the proposed translation methods using the collection from CLEF 2001 composed by LA Times 94 and Glasgow Herald 95. We translated from English to Basque two sets of topics: one for development (41-90) and the other one for test purposes (250-350). MAP values are calculated automatically with respect to existing human relevance judgments for queries and documents of the collections. The translation of the topics was carried out by professional translators and correctors of the Elhuyar foundation. The process was done in two steps: firstly, a translator translated the English topics into Basque, and then a corrector corrected the translations in order to minimize the possible bias -and the possible lack of naturalness- caused by the translation process.

We used the Indri as ranking model and the Porter Stemmer both for collections and translated topics. Before applying the proposed translation

methods we removed words like *"documentuak...(documents)"* and selected the content words manually. Specifically, nouns, adjectives, verbs and adverbs. Postpositions like *"artean (between), buruz (about)..."* were also removed. We used a Basque-English MRD which includes 34167 entries. For the treatment of OOV (Out-Of-Vocabulary) words we looked for their cognates in the target collection. Transliteration rules (see figure III.2) were applied and then LCSR (Longest Common Sequence Ratio) was computed. Those which reached a threshold (0.8) were taken as translation candidates in the translation phase.

ph- ⇨ f-, phase=fase
-tion ⇨ -zio, action=akzio

Figure III.2: Examples of transliteration rules.

The runs were done by taking the titles as queries (short queries), and also by taking the titles and descriptions as queries (long queries) and carrying out Basque to English translation:

1) Monolingual: Titles and titles+descriptions of CLEF 250-350 English topics.

2) First translation: First translation from dictionary

3) Structured query: Group translation candidates from the dictionary in a #syn set using Pirkola's method.

4) Structured query (Optimized dictionary): first translation candidates of the dictionary grouped in a #syn set (three for titles and twelve for the titles+descriptions maximize MAP on development experiments) using Pirkola's method.

5) Co-occurrence-based translation: Best translation selected by Monz and Dorr's co-occurrence-based algorithm.

6) Probabilistic structured query: all translation candidates of the dictionary grouped in a #wsyn set using Darwish and Oard's method, and weighted according Monz and Dorr's co-occurrence-based algorithm.

7) Probabilistic structured query+threshold: Best translations selected according to a threshold and weighted by Monz and Dorr's

co-occurrence-based algorithm and grouped by #wsyn set using Darwish and Oard's method.

The results are presented in table III.3 and figures III.3 and III.4.

Run	MAP		% of Mon.		Improvement Over First %	
	Short	Long	Short	Long	Short	Long
English monolingual	0.3176	0.3778				
First	0.2118	0.2500	67	66		
Structured query	0.2342	0.2959	74	78	9.56*	15.51*
Structured query (optimized dictionary)	0.2359	0.2960	74	78	10.22*	15.54*
Co-occurrences -based	0.2338	0.2725	74	72	9.41*	8.26*
Probabilistic structured queries + threshold	0.2404	0.2920	76	77	11.9*	14.38*
Probabilistic structured queries	0.2371	0.2941	75	78	10.67	14.99*

Table III.3: MAP values for 250-350.

The achieved MAP is higher with long queries than with short queries in both cases, monolingual and cross-lingual. In the cross-lingual retrieval the translation methods proposed also offer greater improvement with long queries. This is logical because more context words help in the translation selection. Unlike the results in the development experiments, the methods do not show a different performance depending on the length of the queries. We have examined the queries translated by Monz and Dorr's method and the quality is quite adequate except for a few cases due to false associations. For example, the Basque query *"kutsatu odol **epai**"* is translated as *"infect blood **cut**"* by Monz and Dorr's method instead of *"infect blood **sentence**"*. We can assume that it happens due to the stronger relation between -*epai* source word's translation candidate and *infect* and *blood* and *cut* -*epai* source



Figure III.3: PR curves (Titles).



Figure III.4: PR curves (Titles + Description).

word's translation candidate- than between *infect* and *blood* and *sentence* another translation candidate for *epai*. It seems to be because of the the limited representativity of the target collection where some words rarely co-occur. So this could be mitigated by using a bigger corpus. For short queries, too, the hybrid method shows the best results, but statistically does not outperform Pirkola's method significantly. Pirkola's method achieves the best results when dealing with long queries. The optimized MRD improves the MAP but not significantly. All improvements that are statistically significant according to the Paired Randomization Test with α=0.05 are marked with an asterisk in table III.3.

It seems that selecting and weighting translation candidates by means of Monz and Dorr's method in order to include them in structured queries do not imply a significant improvement in MAP terms with respect to Pirkola's method. As in the earlier case, the queries translated by the hybrid method are adequate except for a few cases of false associations. In any case, as we have seen in subsection III.1.3.3, improving the quality of the translation does not always improve the MAP.

Itzulpen-hautapena inplementatzerakoan corpus paraleloak ez erabiltzeko alternatibak daudela frogatu dugu. CLIR atazan itzulpen-hautapena egiteko helburu-bilduma ustiatu daitekeela ikusi dugu. Funtsezko ideia helburu-bilduman elkarrekin agertzeko joera duten itzulpen-hautagaien multzoa aukeratzea da. Estrategia hau inplementatzeko bi teknika aztertu ditugu. Lehenengo teknikak (Pirkolaren metodoa) ez du aukeraketa esplizitutik egiten, bildumatik jasotako agerkidetza-estatistikak ranking-funtzioko *tf* eta *idf* estatistikoen kalkuluen eragiten dute eta. Hautapena berreskurapen-garaian modu inplizituan egiten dela esan daiteke. Bigarren teknika bildumako agerkidetza-estatistikak modu zuzenean baliatzen dituen *greedy* algoritmo batean oinarritzen da. Itzulpen-hautagaien agerkidetza-estatistikak baliatuz *greedy* metodoak elkartze-maila handiena duten itzulpen-hautagaien multzoa aukeratzen du.

Bi teknikek hiztegiko lehen itzulpena hartzen duen oinarri-lerroko emaitzak nabarmen hobetzen dituzte, eta ingelesezko elebakarraren eraginkortasunaren %80ra hurbiltzen dira (goren lerroa), VII.2 taulan erakusten den bezala. Esperimentuetan bi metodoen artean ez dugu alde esanguratsurik aurkitu kontsulta laburren kasuan. Kontsulta luzeak itzultzean Pirkolaren metodoak emaitza hobeak lortzen ditu. Bi metodoak konbinatuz kontsulta laburren kasuan lortzen da hobekuntza, baina oso txikia da.

Bi metodoen artean eraginkortasunean alde handirik ez badago ere,

nabarmentzekoa da Pirkolaren metodoa kostu konputazional txikiagokoa dela. Hori dela eta, egokiagoa litzateke konputazio-kontsumoa lehentasun duten eszenatokietarako. Halere, hainbat IR tresnetan zaila da Pirkolaren metodoa inplementatzea, ranking-funtzioaren kodean aldaketak eskatzen dituelako. Kasu horietan agerkidetza-estatistiketan oinarritutako *greedy* metodoa errazago integratu liteke, ranking-funtziotik kanpokoa baita.

	MAP		Ingelesezko elebakarrarekiko %		Lehen itzulpenarekiko hobekuntza	
	Lab.	Luz.	Lab.	Luz.	Lab.	Luz.
Ingelesezko elebakarra	0,3176	0,3778	-	-	-	-
Lehen itzulpena	0,2118	0,2500	%67	%66	-	-
Pirkola	0,2342	0,2959	%74	%78	+%9,56	+%15,51
Agerkidetzak (*greedy*)	0,2338	0,2725	%74	%72	+%9,41	+%8,26
Hibridoa	0,2404	0,2920	%76	%77	+%11,9	+%14,38

VII.2 taula: Helburu-bilduman oinarritutako itzulpen-hautapenerako metodoen ebaluaketa *eu* $\rightarrow$ *en* norabiderako. Hibridoa Pirkola eta Agerkidetzen (*greedy*) konbinazioa da. Kontsula laburrak (Lab.) eta kontsulta luzeak (Luz.).

III. kapituluan landutako teknikek helburu-bildumako agerkidetzak ustiatzen dituzte, baina informazio hori mugatua da zenbait itzulpen-hautagai ebazteko. Hori dela eta, beste bi informazio-iturri aztertu ditugu IV. eta V. kapituluetan: corpus konparagarriak eta kontsulta-saioak, hurrenez hurren. Bi informazio-iturri hauek ustiatuz itzulpena hautatzeko prozesua eta ondorengo berreskurapena gehiago findu daitezkeela egiaztatu dugu.

IV. kapituluan azaldatuko [Saralegi and Lopez de Lacalle, 2010b] artikuluan corpus konparagarrietatik itzulpen-ezagutza erauzi daitekeela frogatu dugu itzulpen-hautapena hobeto egiteko. Helburu-bildumatik erauzitako informazioa ez bezala, jatorrizko hitzaren eta bere itzulpenaren arteko elkartze-mailari lotutako informazioa erauzi daiteke corpus konparagarrietatik. Elkartze-maila hauek estimatzeko hizkuntza-arteko antzekotasun distribuzionala baliagarria dela ikusi dugu. Modu honetan

erauzitako itzulpen-probabilitateak Pirkolaren metodoan (pisuak onartzen dituen aldaera [Darwish and Oard, 2003]) integratuz (VII.3 taulan Pirkola+corpus konparagarriak) hobekuntza estatistikoki esanguratsua lortzen dugu, %3,49koa. Hizkuntza-arteko antzekotasun distribuzionala kalkulatzeko web-bilatzaileak corpus konparagarri iturri gisa erabil daitezkeela ere egiaztatu dugu. Proposatzen dugun metodoak hitz guztietarako antzekotasun distribuzionala kalkulatzeko behar adinako testuinguruen bilketa bermatzen du.

	MAP	Ingelesezko elebakarrarekiko %	Pirkolarekiko hobekuntza
Ingelesezko elebakarra	0,37	-	-
Lehen itzulpena	0,25	%67,43	-
Pirkola	0,29	%79,21	-
Pirkola+corpus konparagarriak	0,30	%82,63	+%3,49

VII.3 taula: Web corpus konparagarrietan oinarritutako itzulpen-hautapenerako metodoaren ebaluaketa $es \rightarrow en$ norabiderako.

IV. kapituluko [Saralegi and Gamallo, 2013] artikuluan web-bilatzaileen bidez lortutako testuinguruen azterketa linguistiko sakonago bat egin dugu. Adierazgarritasun linguistikoa neurtzeko adieren banaketa eta koherentzia linguistikoa hartu dira irizpide gisa, eta hiru web-bilatzaile aztertu dira: *WebCorp*, *Google Blog Search* eta *Google News Archive*. Adiera-banaketari dagokionez, eta *SemCor* erreferentzia hartuta, *Google News Archive* eta *Google Blog Search* bilatzaileek harekiko korrelazio handiena dute (ikusi VII.4 taula), korrelazio hau moderatua bada ere. Koherentzia linguistikoari dagokionez *WebCorp* bilatzaileak erakusten du portaera okerrena (testuinguruen %24k koherentziari lotutako akatsak dituzte). Emaitza hauek direla eta, esan dezakegu amarauneko bilatzaileen bidez eskuratutako hitz-adierei buruzko informazioa ez dela behar adineko zehatza ezagutza-erauzketa, edota adiera-desanbiguazioko atazetan ustiatzeko.

V. kapituluan saio-mailako informazioaren ustiaketak kontsulten itzulpen-hautapena hobetzen laguntzen duela ikusi dugu. Saio-mailako testuinguruak, semantikoki lortutako kontsulta-multzo bat izanik,

	Adiera-banaketaren Pearson korrelazioa SemCor-ekiko	Inkoherentzia linguistikoa (%)
WebCorp	0,51	%24
Google Blog Search	0,56	%12
Google News Archive	0,66	%8

VII.4 taula: Amarauneko bilatzaileen bidez eskuratutako testuinguruen adierazgarritasun linguistikoaren azterketa.

birformulatutako kontsulten itzulpena hobeto desanbiguatzeko balio du. Gure esperimentuetan lortutako emaitzen arabera hobekuntza lor daiteke, bai itzulpen-prozesuan, bai ondorengo berreskurapen-prozesuan (ikusi VII.5 taula). Bi kontsulta dituzten saioekin egindako esperimentuen arabera hobekuntza itzulpenaren hobekuntza birformulazio mota guztietan lortzen da, orokortzean, zehaztean, eta dibagazioan. Berreskurapen-prozesuan lortutako hobekuntza, ordea, orokortze, eta zehazte motako birfomulazioekin baino ez da gertatzen esanguratsua.

	Itzulpena (HTER)		Berreskurapena (MAP)	
Birformulazio-mota	-saioa	+saioa	-saioa	+saioa
Orokortzea	0,118	0,107	0,053	0,055
Zehaztea	0,200	0,179	0,056	0,061
Dibagazioa	0,152	0,130	0,070	0,071

VII.5 taula: Itzulpen-hautapenerako metodoen ebaluaketa *eu* $\rightarrow$ *en* norabiderako, saioa erabilita (+saioa) eta erabili gabe (-saioa). HTER txikiagoa hobea.

III. IV. eta V. kapituluetako ondorioak laburbilduz honakoa esan dezakegu: hiztegien bidezko estrategia hizkuntza arteko berreskurapenerako baliagarria dela, baina hainbat fenomeno (itzulpen-anbiguotasuna, hitz anitzeko terminoak eta hiztegitik kanpoko hitzak) modu berezian tratatuz, batez ere, itzulpen anbiguoei dagozkienak. Fenomeno hau tratatzeko corpus paraleloetan oinarritutako tekniken alternatibak daude, baliabide urriko hizkuntzetarako egokiak direnak. Hiru informazio-iturri mota ezberdinetan oinarritutako teknikak aurkeztu ditugu, eta guztietan hobekuntza lortu

dugu itzulpen-hautapen prozesuaren eraginkortasunean. Hortaz, hiztegiek, helburu-bildumak, web-bilatzaileak eta saioek emandako informazioa ustiatuta eraginkortasun handiko CLIR sistema bat garatu daiteke.

Metodoa	Batazbesteko F_1-scorea	Batasbesteko $F_2 - puntuazioa$ (Estaldura lehenetsita)	Batasbesteko $F_{0.5} - puntuazioa$ (Doitasuna lehenetsita)
AK	0,34	0,27	0,46
AS	0,47	0,64	0,46
AK+AS	0,52	0,67	0,52

VII.6 taula: Pibotaje metodoen portaera ($Fpuntuazio$ren arabera) pibotaje-prozesuaren bidezko kasu anbiguoak ebazteko. AK alderantzizko kontsulta, AS antzekotasun distribuzionala.

Tesi-lan honetako azken esperimentuetan, **VI. kapituluan** azaldutakoetan, hiztegi elebidunaren faltan hiztegiak modu automatikoan eraiki ahal direla ikusi dugu. Pibotaje bidezko estrategiaz baliatuta, baliabide urriko hizkuntzak dituzten hiztegi elebidunak modu automatikoan sor daitezkeela frogatu dugu. D_{a-b} eta D_{b-c} hiztegiak gurutzatuz, eta b hizkuntza pibote gisa erabiliz, D_{a-c} hiztegia sortu ahal dira. B hizkuntzako hitzen anbiguotasunaren ondorioz eragindako itzulpen okerrak baztertzeko berezko teknikak aplikatu behar dira ordea. Bestela, zarata handiko hiztegiak eraikiko dira. Aztertu ditugun bi teknikek informazio-mota ezberdinak ustiatzen dituzte: batak (*Alderantzizko kontsulta* edo *AK*), gurutzatu beharreko hiztegien egitura, eta besteak (*Antzekotasun distribuzionala* edo *AS*), corpus konparagarrietatik kalkulatutako hizkuntza-arteko antzekotasun distribuzionala. Lehenengo teknika, aparteko baliabiderik behar ez duena, doitasun handiko hiztegientzat egokia da soilik. Corpus konparagarrietan oinarritutako teknikak, ordea, estaldura hobea bermatzen du doitasun berdina emanez. Biak konbinatuz lortuko genituzke doitasun eta estaldura handieneko hiztegiak (ikusi VII.6 taula). Hortaz, CLIR eszenatoki bati begira konbinazioa izango litzateke metodorik egokiena.

VII.2 Ekarpenak

Tesi honetan hiru motako ekarpenak egin ditugu: CLIR tekniken ebaluazioa, CLIR teknika berrien garapena, eta CLIR esperimentuak egiteko zenbait baliabideren sorkuntza. Jarraian azaltzen ditugu hiru multzo hauetako ekarpen nagusiak:

- Euskararako CLIR sistema oso bat garatzeko inplementatu behar diren urratsen azterketa osoa.
- Hiztegietan oinarritutako CLIR sistema bat garatzeko orduan ebatzi beharreko problemen deskribapena eta kuantifikazioa (III. kapituluan).
- Kontsultaren itzulpen-prozesuan gertatutako hiztegitik kanpoko hitzen presentziaren problemari aurre egiteko antzekotasun ortografikoan oinarrituko metodo baten egokitzapena eta azterketa berri bat (III. kapituluan).
- Kontsultaren itzulpen-prozesuan gertatutako itzulpen anbiguoen problema ebazteko zenbait metodoren egokitzapena eta metodo berriren garapena (III., IV. eta V. kapituluetan).
  - Helburu-bilduman oinarritutako bi metodoren azterketa eta egokitzapen berri bat (III. kapituluan). Bata (Pirkola) ranking-funtzioan integratutakoa, eta bestea kontsulta itzultzeko *greedy* algoritmo bat.
  - Amaraunetik estimatutako hizkuntza arteko antzekotasun distribuzionalean oinarritutako metodo berri baten garapena (IV. kapituluan).
  - Hiztegietan oinarritutako hizkuntza arteko bilaketa inplementatzen duen kode irekiko pakete bat, Bilakit[1] izenekoa, Solr/Lucene bilaketa-tresnaren gainean funtzionatzen duena.
  - Kontsulta-saioen informazioan oinarritutako metodo berri baten garapena (V. kapituluan).
- Hizkuntzen artean konparagarriak diren testuinguruak amaraunetik biltzen dituen metodo eta bertan oinarritutako tresna berri bat garatu dira IV. kapituluan. Tresnak *WebCorp*, *Google Blog Search* eta *Google News Archive* bilatzaileak erabiltzeko aukera ematen du.

[1] https://github.com/Elhuyar/Bilakit

- Amarauneko bilatzaileen bidez bildutako testuinguruen azterketa linguistiko berri bat (IV. kapituluan).

- CLIR esperimentutarako hainbat euskarazko gai-zerrenda (*topics*) prestatu dira. CLEF eta TREC datu-multzo estandarretako gaiak hartu eta itzuli egin dira euskarara (III. eta V. kapituluetan).

- Pibotaje bidez eraikitako hiztegi elebidunen doitasuna hobetzeko bi metodoren azterketa eta biak konbinatzen dituen metodo berri bat garatu dira, hizkuntza arteko antzekotasun distribuzionalean eta hiztegien egituran oinarritutakoa (VI. kapituluan).

- Hizkuntza arteko antzekotasun distribuzionala kalkulatzeko kazetaritzako corpus konparagarriak bildu dira euskara eta gaztelaniarako (VI. kapituluan).

VII.3 Etorkizuneko lanak

Etorkizuneko lanen artean aurreikusitako esperimentuetan egiteko geratu diren lanak honakoak dira:

- IV. kapituluko esperimentuak gaztelania-ingelesa bikoterako egin dira. Esperimentuetatik ateratako ondorioak teorikoki euskara-ingelesa bikotera estrapolagarriak badira ere, enpirikoki kontrastatu nahiko genuke esperimentua euskara-ingelesa CLIR ataza baten gainean.

- V. kapituluan aurkeztutako metodoa, saioaren informazioa ustiatzen duen itzulpen-hautapenerako metodoa, saio luzeagoak ustiatuz ebaluatu nahi genuke.

- III., IV. eta V. kapituluetan aurkeztutako itzulpen-hautapen metodo guztiak metodo bakarrean integratu nahiko genituzke. Horrela, ikusiko genuke itzulpen-hautapena hobetzeko baliatu ditugun informazio-iturburu mota guztiak modu bateratuan ustiatuz zenbateko hobekuntza metatua lor genezakeen.

- VI. kapituluan aurkeztutako pibotaje-metodoen eraginkortasuna eszenatoki teorikoetan ebaluatu da. CLIR ataza eszenatoki teoriko horietako bat bada ere, baliabideen ebaluazio estrinseko bat egin nahiko genuke CLIR ataza erreal baten barruan.

Bestalde, tesi-lan honek bidea irekitzen dio zenbait ikerketa-ildori.

Batetik, MT sistemen eta corpus paraleloen eskuragarritasuna handiagoa izaten ari da tesia hasi genuenean aurreikusi baino, euskararen kasuan behintzat. Hori dela eta, ondo legoke aztertzea CLIR atazatan zenbateraino diren osagarriak tesi-lan honetan proposatzen diren itzulpen-hautapenerako informazio-iturriak eta corpus paraleloak eta MT sistemak.

Bestetik, azkeneko urteetan *word embedding* teknikak hizkuntza naturaleko hainbat atazatan aplikatzen hasi dira. *Word embedding* kontzeptua erabat berria ez bada ere, hitzen bektoreak eraikitzeko eredu berriak proposatu dira literaturan. Eredu berri hauek kontaketetan oinarritutakoek baino emaitza hobeak ematen dituzte [Baroni et al., 2014]. Tesi-lan honetan, hizkuntza arteko antzekotasun distribuzionala neurtzeko kontaketa bidezko hitzen bektoreak erabili ditugu kontsultaren itzulpenean eta pibotaje bidezko hiztegien sorkuntzan. *Word embedding* teknika berri hauek hizkuntza arteko antzekotasun distribuzionala hobeto neurtzen lagun dezakete, antzeko atazetan frogatu den bezala [Artetxe et al., 2016].

Glosategia

- Antzekotasun distribuzionala (*distributional similarity*): Hitzen arteko antzekotasun semantikoa kalkulatzeko hurbilpena da. Banaketa-hipotesian oinarritzen da: antzeko esanahiko hitzak antzeko banaketak dituzte.

- Adierazgarritasun-epaia (*relevance judgement*): Kontsulta bakoitzeko dokumentu esanguratsuak zehazten ditu.

- Adierazgarritasun-maila (*relevance*): Dokumentu batek kontsultan adierazitako informazio-beharra asetzeko duen gaitasun-maila da. Adierazgarritasun-mailak gaiari ez ezik, autoritate, berritasun eta bestelako irizpideei erreparatu diezaieke.

- Agerkidetza (*co-occurrence*): Bi hitz testu-bilduma bateko testuinguru (dokumentua, esaldia, esalditik beherako hitz-leihoa) batean elkarrekin agertzea.

- Berreskurapen-algoritmoa (*retrieval algorithm*): Kontsulta baterako adierazgarriak diren dokumentuak bilduma batean aurkitu eta ranking-funtzioaren arabera ordenatzen dituen algoritmoa.

- Birformulazioa (*reformulation*): Kontsulta saio bateko kontsulta baten ondorengo kontsulta.

- Corpus konparagarria (*comparable corpora*): Adierazle baten arabera antzekoak diren corpusak. Askotan bi hizkuntzetako bi corpus, alor edo gai berekoak direnak.

- Corpus paraleloa (*parallel corpora*): Elkarren itzulpenak diren testuen bilduma, askotan esaldi mailan lerrokatuta dagoena.

- Dokumentu adierazgarrien rankinga (*relevant document ranking*): Kontsulta baterako adierazgarriak diren dokumentuak adierazgarritasun-mailaren arabera sailkatuta.
- Erabiltzailea (*user*): IR sistema bat erabiltzen duen pertsona.
- Helburu-bilduma (*target collection*): Kontsultarekiko adierazgarria den informazioa aurkitzeko IR sistemak erabiltzen duen testu-bilduma.
- Hizkuntza arteko informazioaren berreskurapena (*Cross Lingual Information Retrieval* edo CLIR): Kontsulta eta IR sistemaren atzean dagoen bilduma hizkuntza desberdinetan daudenean.
- Informazioaren berreskurapena (*Information Retrieval* edo IR): Informazio adierazgarria lortzeko ataza, informazio-behar batetik abiatzen dena, askotan gako-hitz multzo baten bidez adierazita.
- Itzulpen automatikoa (*Machine Translation* edo MT): Testuak modu automatikoan itzultzeko teknologia.
- Itzulpen-hautagaiak edo itzulpen anbiguoak (*translation candidates*): Itzuli nahi den hitzerako itzulpen-hautagaiak.
- Kontsulta (*query*): Erabiltzailearen informazio-beharra adierazten duena eta IR sistemari pasatzen diona.
- Kontsulta-saioa (*query session*): IR sistema batean, erabiltzaileak bere helburua topatu duen arte egindako kontsulta segida.

Bibliografia

Eneko Agirre and David Martinez. The effect of bias on an automatically-built word sense corpus. In *Proceedings of the 4rd International Conference on Languages Resources and Evaluations (LREC)*, 2004.

Eneko Agirre, Olatz Ansa, Eduard H. Hovy, and David Martínez. Enriching very large ontologies using the WWW. In *ECAI Workshop on Ontology Learning*, 2000.

Eneko Agirre, Olatz Ansa, Xabier Arregi, Maddalen Lopez De Lacalle, Arantxa Otegi, Xabier Saralegi, and Hugo Zaragoza. Elhuyar-ixa: Semantic relatedness and cross-lingual passage retrieval. In *Workshop of the Cross-Language Evaluation Forum for European Languages*, pages 273–280. Springer, 2009.

Eneko Agirre, Olatz Ansa, Xabier Arregi, Maddalen Lopez De Lacalle, Arantxa Otegi, and Xabier Saralegi. Document Expansion for Cross-Lingual Passage Retrieval. In *CLEF (Notebook Papers/LABs/Workshops)*, 2010.

Iñaki Alegria, Antton Gurrutxaga, Pili Lizaso, Xabier Saralegi, Sahats Ugartetxea, and Ruben Urizar. A XML-Based Term Extraction Tool for Basque. In *LREC*, 2004.

Iñaki Alegria, Olatz Ansa, Xabier Arregi, Arantxa Otegi, and Ander Soraluze. Ihardetsi: A Question Answering system for Basque built on reused linguistic processors. In *Proc. SALTMIL 2009 workshop: Information Retrieval and Information Extraction for Less Resourced Languages*, pages 37–43, 2009.

Olatz Ansa, Xabier Arregi, Arantxa Otegi, and Ander Soraluze. Ihardetsi: a Basque question answering system at QA@ CLEF 2008. In *Workshop*

of the Cross-Language Evaluation Forum for European Languages, pages 369–376. Springer, 2008.

Mikel Artetxe, Gorka Labaka, and Eneko Agirre. Learning principled bilingual mappings of word embeddings while preserving monolingual invariance. In *EMNLP*, 2016.

Hosein Azarbonyad, Azadeh Shakery, and Heshaam Faili. Using Learning to Rank Approach for Parallel Corpora Based Cross Language Information Retrieval. In *ECAI*, volume 12, pages 79–84, 2012.

Ricardo Baeza-Yates, Berthier Ribeiro-Neto, et al. *Modern information retrieval*, volume 463. ACM press New York, 1999.

Lisa Ballesteros and W Bruce Croft. Phrasal translation and query expansion techniques for cross-language information retrieval. In *ACM SIGIR Forum*, volume 31, pages 84–91. ACM, 1997.

Lisa Ballesteros and W Bruce Croft. Resolving ambiguity for cross-language retrieval. In *Proceedings of the 21st annual international ACM SIGIR conference on Research and development in information retrieval*, pages 64–71. ACM, 1998.

Marco Baroni and Silvia Bernardini. *WaCky!: working papers on the web as corpus*, volume 6. Gedit, 2006.

Marco Baroni, Georgiana Dinu, and Germán Kruszewski. Don't count, predict! A systematic comparison of context-counting vs. context-predicting semantic vectors. In *ACL (1)*, pages 238–247, 2014.

Francis Bond and Kentaro Ogura. Combining linguistic resources to create a machine-tractable Japanese-Malay dictionary. *Language Resources and Evaluation*, 42(2):127–136, 2008.

Francis Bond, Ruhaida Binti Sulong, Takefumi Yamazaki, and Kentaro Ogura. Design and construction of a machine-tractable Japanese-Malay dictionary. In *MT Summit VIII*, pages 53–58, 2001.

Andrei Broder. A taxonomy of web search. In *ACM Sigir forum*, volume 36, pages 3–10. ACM, 2002.

Jamie Callan, Mark Hoy, Changkuk Yoo, and Le Zhao. Clueweb09 data set, 2009.

Yunbo Cao, Jun Xu, Tie-Yan Liu, Hang Li, Yalou Huang, and Hsiao-Wuen Hon. Adapting ranking SVM to document retrieval. In *Proceedings of the 29th annual international ACM SIGIR conference on Research and development in information retrieval*, pages 186–193. ACM, 2006.

Ben Carterette, Evangelos Kanoulas, and Emine Yilmaz. Simulating simple user behavior for system effectiveness evaluation. In *Proceedings of the 20th ACM international conference on Information and knowledge management*, pages 611–620. ACM, 2011.

Aitao Chen and Fredric C Gey. Combining query translation and document translation in cross-language retrieval. In *Workshop of the Cross-Language Evaluation Forum for European Languages*, pages 108–121. Springer, 2003.

Ping Chen, David Brown, Andrew Tran, Noble Ozoka, and Rafael Ortiz. Word sense distribution in a web corpus. In *Cognitive Informatics (ICCI), 2010 9th IEEE International Conference on*, pages 449–453. IEEE, 2010.

Cyril Cleverdon. The Cranfield tests on index language devices. In *Aslib proceedings*, volume 19, pages 173–194. MCB UP Ltd, 1967.

Kareem Darwish and Douglas W Oard. Probabilistic structured query methods. In *Proceedings of the 26th annual international ACM SIGIR conference on Research and development in informaion retrieval*, pages 338–344. ACM, 2003.

Crystal David. English as a global language. *UK: Cambridge University Press. Print*, 1997.

Dina Demner-Fushman and Douglas W Oard. The effect of bilingual term list size on dictionary-based cross-language information retrieval. In *System Sciences, 2003. Proceedings of the 36th Annual Hawaii International Conference on*, pages 10–pp. IEEE, 2003.

Maike Erdmann, Kotaro Nakayama, Takahiro Hara, and Shojiro Nishio. An approach for extracting bilingual terminology from wikipedia. In *International Conference on Database Systems for Advanced Applications*, pages 380–392. Springer, 2008.

Flash Eurobarometer. User Language Preference Online. *Analytical Report.[online][cited 2015. 3. 30.]¡ http://ec. europa. eu/public_opinion/flash/fl_313_en. pdf*, 2011.

Pascale Fung. Compiling bilingual lexicon entries from a non-parallel English-Chinese corpus. In *Proceedings of the Third Workshop on Very Large Corpora*, pages 173–183, 1995.

Pascale Fung and Lo Yuen Yee. An IR approach for translating new words from nonparallel, comparable texts. In *Proceedings of the 17th international conference on Computational linguistics-Volume 1*, pages 414–420. Association for Computational Linguistics, 1998.

Pablo Gamallo and José Pichel. Automatic Generation of Bilingual Dictionaries Using Intermediary Languages and Comparable Corpora. *Computational Linguistics and Intelligent Text Processing*, pages 473–483, 2010.

Jianfeng Gao, Jian-Yun Nie, Endong Xun, Jian Zhang, Ming Zhou, and Changning Huang. Improving query translation for cross-language information retrieval using statistical models. In *Proceedings of the 24th annual international ACM SIGIR conference on Research and development in information retrieval*, pages 96–104. ACM, 2001.

Jianfeng Gao, Ming Zhou, Jian-Yun Nie, Hongzhao He, and Weijun Chen. Resolving query translation ambiguity using a decaying co-occurrence model and syntactic dependence relations. In *Proceedings of the 25th annual international ACM SIGIR conference on Research and development in information retrieval*, pages 183–190. ACM, 2002.

Wei Gao, Cheng Niu, Jian-Yun Nie, Ming Zhou, Jian Hu, Kam-Fai Wong, and Hsiao-Wuen Hon. Cross-lingual query suggestion using query logs of different languages. In *Proceedings of the 30th annual international ACM SIGIR conference on Research and development in information retrieval*, pages 463–470. ACM, 2007.

Julio Gonzalo. Scenarios for interactive cross-language information retrieval systems. In *Proceedings of SIGIR 2002 Workshop on Cross-Language IR*, 2002.

Antton Gurrutxaga, Xabier Saralegi, Sahats Ugartetxea, and Iñaki Alegria. Elexbi, a basic tool for bilingual term extraction from Spanish-Basque parallel corpora. In *Atti del XII Congresso Internazionale di Lessicografia: Torino, 6-9 settembre 2006*, pages 159–165, 2006.

Felix Hieber and Stefan Riezler. Bag-of-words forced decoding for cross-lingual information retrieval. In *Proceedings of the Conference*

of the North American Chapter of the Association for Computational Linguistics-Human Language Technologies, Denver, Colorado, 2015.

Djoerd Hiemstra. *Using language models for information retrieval*. Taaluitgeverij Neslia Paniculata, 2001.

Rong Hu, Weizhu Chen, Jian Hu, Yansheng Lu, Zheng Chen, and Qiang Yang. Mining Translations of Web Queries from Web Click-through Data. In *AAAI*, pages 1144–1149, 2008.

David A Hull and Gregory Grefenstette. Querying across languages: a dictionary-based approach to multilingual information retrieval. In *Proceedings of the 19th annual international ACM SIGIR conference on Research and development in information retrieval*, pages 49–57. ACM, 1996.

Varga István and Yokoyama Shoichi. Bilingual dictionary generation for low-resourced language pairs. In *Proceedings of the 2009 Conference on Empirical Methods in Natural Language Processing: Volume 2-Volume 2*, pages 862–870. Association for Computational Linguistics, 2009.

Myung-Gil Jang, Sung Hyon Myaeng, and Se Young Park. Using mutual information to resolve query translation ambiguities and query term weighting. In *Proceedings of the 37th annual meeting of the Association for Computational Linguistics on Computational Linguistics*, pages 223–229. Association for Computational Linguistics, 1999.

Kalervo Järvelin and Jaana Kekäläinen. IR evaluation methods for retrieving highly relevant documents. In *Proceedings of the 23rd annual international ACM SIGIR conference on Research and development in information retrieval*, pages 41–48. ACM, 2000.

Gareth Jones, Tetsuya Sakai, Nigel Collier, Akira Kumano, and Kazuo Sumita. Exploring the use of machine translation resources for englishjapanese cross-language information retrieval. In *In Proceedings of MT Summit VII Workshop on Machine Translation for Cross Language Information Retrieval*, pages 181–188. Citeseer, 1999.

Hiroyuki Kaji, Shin'ichi Tamamura, and Dashtseren Erdenebat. Automatic Construction of a Japanese-Chinese Dictionary via English. In *LREC*, volume 2008, pages 699–706, 2008.

Evangelos Kanoulas, Paul Clough, Ben Carterette, and Mark Sanderson. Session track at TREC 2010. *Simulation of Interaction*, page 13, 2010.

Adam Kilgarriff. How dominant is the commonest sense of a word? In *International Conference on Text, Speech and Dialogue*, pages 103–111. Springer, 2004.

Adam Kilgarriff. Getting to know your corpus. In *International Conference on Text, Speech and Dialogue*, pages 3–15. Springer, 2012.

Adam Kilgarriff and Gregory Grefenstette. Introduction to the special issue on the web as corpus. *Computational linguistics*, 29(3):333–347, 2003.

Alexandre Klementiev and Dan Roth. Weakly supervised named entity transliteration and discovery from multilingual comparable corpora. In *Proceedings of the 21st International Conference on Computational Linguistics and the 44th annual meeting of the Association for Computational Linguistics*, pages 817–824. Association for Computational Linguistics, 2006.

Kevin Knight and Jonathan Graehl. Machine transliteration. In *Proceedings of the eighth conference on European chapter of the Association for Computational Linguistics*, pages 128–135. Association for Computational Linguistics, 1997.

Zornitsa Kozareva, Ellen Riloff, and Eduard H Hovy. Semantic Class Learning from the Web with Hyponym Pattern Linkage Graphs. In *ACL*, volume 8, pages 1048–1056, 2008.

Frederick Wilfrid Lancaster and Emily Gallup. Information retrieval on-line. Technical report, 1973.

Leah S. Larkey, James Allan, Margaret E. Connell, Alvaro Bolivar, and Courtney Wade. UMass at TREC 2002: Cross Language and Novelty Tracks. In *TREC*, 2002.

Igor Leturia, Antton Gurrutxaga, Nerea Areta, Iñaki Alegria, and Aitzol Ezeiza. EusBila, a search service designed for the agglutinative nature of Basque. In *Proceedings of Improving non-English web searching (iNEWS07) workshop*, pages 47–54, 2007.

Igor Leturia, Antton Gurrutxaga, Nerea Areta, Iñaki Alegria, and Aitzol Ezeiza. Morphological query expansion and language-filtering words for improving Basque web retrieval. *Language resources and evaluation*, 47 (2):425–448, 2013.

Yi Liu, Rong Jin, and Joyce Y Chai. A maximum coherence model for dictionary-based cross-language information retrieval. In *Proceedings of the 28th annual international ACM SIGIR conference on Research and development in information retrieval*, pages 536–543. ACM, 2005.

Walid Magdy and Gareth JF Jones. Studying machine translation technologies for large-data CLIR tasks: a patent prior-art search case study. *Information Retrieval*, 17(5-6):492–519, 2014.

Christopher D. Manning, Prabhakar Raghavan, and Hinrich Schütze. *Introduction to Information Retrieval*. Cambridge University Press, New York, NY, USA, 2008. ISBN 0521865719, 9780521865715.

Jennifer Marlow, Paul Clough, Juan Cigarrán Recuero, and Javier Artiles. Exploring the effects of language skills on multilingual web search. In *European Conference on Information Retrieval*, pages 126–137. Springer, 2008.

Mausam, Stephen Soderland, Oren Etzioni, Daniel S. Weld, Michael Skinner, and Jeff A. Bilmes. Compiling a Massive, Multilingual Dictionary via Probabilistic Inference. In *ACL/IJCNLP*, 2009.

J Scott McCarley. Should we translate the documents or the queries in cross-language information retrieval? In *Proceedings of the 37th annual meeting of the Association for Computational Linguistics on Computational Linguistics*, pages 208–214. Association for Computational Linguistics, 1999.

Diana McCarthy, Rob Koeling, Julie Weeds, and John Carroll. Finding predominant word senses in untagged text. In *Proceedings of the 42nd Annual Meeting on Association for Computational Linguistics*, page 279. Association for Computational Linguistics, 2004.

Rada Mihalcea. Semcor semantically tagged corpus. *http://www.cse.unt.edu/rada/downloads.html*, 1998.

George A Miller. WordNet: a lexical database for English. *Communications of the ACM*, 38(11):39–41, 1995.

Christof Monz and Bonnie J Dorr. Iterative translation disambiguation for cross-language information retrieval. In *Proceedings of the 28th annual international ACM SIGIR conference on Research and development in information retrieval*, pages 520–527. ACM, 2005.

Barry Morley. WebCorp: A tool for online linguistic information retrieval and analysis. *Language and Computers*, 55(1):283–296, 2006.

Preslav Nakov, Svetlin Nakov, and Elena Paskaleva. Improved word alignments using the Web as a corpus. *Proceedigs of Recent Advances in Natural Language Processing (RANLP'07)*, pages 400–405, 2007.

Douglas W Oard. A comparative study of query and document translation for cross-language information retrieval. In *Conference of the Association for Machine Translation in the Americas*, pages 472–483. Springer, 1998.

Arantxa Otegi, Xabier Arregi, Olatz Ansa, and Eneko Agirre. Using knowledge-based relatedness for information retrieval. *Knowledge and Information Systems*, 44(3):689–718, 2015.

Kyonghee Paik, Satoshi Shirai, and Hiromi Nakaiwa. Automatic construction of a transfer dictionary considering directionality. In *Proceedings of the Workshop on Multilingual Linguistic Ressources*, pages 31–38. Association for Computational Linguistics, 2004.

Ari Pirkola. The effects of query structure and dictionary setups in dictionary-based cross-language information retrieval. In *Proceedings of the 21st annual international ACM SIGIR conference on Research and development in information retrieval*, pages 55–63. ACM, 1998.

Jay M Ponte and W Bruce Croft. A language modeling approach to information retrieval. In *Proceedings of the 21st annual international ACM SIGIR conference on Research and development in information retrieval*, pages 275–281. ACM, 1998.

Yan Qu, Alla Eilerman, Hongming Jin, and David A Evans. The effect of pseudo relevance feedback on MT-based CLIR. In *Content-Based Multimedia Information Access-Volume 1*, pages 46–61, 2000.

Razieh Rahimi and Azadeh Shakery. A language modeling approach for extracting translation knowledge from comparable corpora. In *European Conference on Information Retrieval*, pages 606–617. Springer, 2013.

Reinhard Rapp. Automatic identification of word translations from unrelated English and German corpora. In *Proceedings of the 37th annual meeting of the Association for Computational Linguistics on Computational Linguistics*, pages 519–526. Association for Computational Linguistics, 1999.

Stephen E Robertson, Cornelis J van Rijsbergen, and Martin F Porter. Probabilistic models of indexing and searching. In *Proceedings of the 3rd annual ACM conference on Research and development in information retrieval*, pages 35–56. Butterworth & Co., 1980.

Fatiha Sadat, Masatoshi Yoshikawa, and Shunsuke Uemura. Bilingual terminology acquisition from comparable corpora and phrasal translation to cross-language information retrieval. In *Proceedings of the 41st Annual Meeting on Association for Computational Linguistics-Volume 2*, pages 141–144. Association for Computational Linguistics, 2003.

Gerard Salton and Michael J. McGill. *Introduction to Modern Information Retrieval*. McGraw-Hill, Inc., New York, NY, USA, 1986. ISBN 0070544840.

Gerard Salton, Anita Wong, and Chung-Shu Yang. A vector space model for automatic indexing. *Communications of the ACM*, 18(11):613–620, 1975.

Celina Santamaría, Julio Gonzalo, and Javier Artiles. Wikipedia as sense inventory to improve diversity in web search results. In *Proceedings of the 48th annual meeting of the association for computational Linguistics*, pages 1357–1366. Association for Computational Linguistics, 2010.

Xabier Saralegi and Pablo Gamallo. Analyzing the sense distribution of concordances obtained by web as corpus approach. In *International Conference on Intelligent Text Processing and Computational Linguistics*, pages 355–367. Springer, 2013.

Xabier Saralegi and Maddalen Lopez de Lacalle. Comparing different approaches to treat translation ambiguity in CLIR: Structured queries vs. target co-occurrence based selection. In *2009 20th International Workshop on Database and Expert Systems Application*, pages 398–404. IEEE, 2009.

Xabier Saralegi and Maddalen Lopez de Lacalle. Dictionary and Monolingual Corpus-based Query Translation for Basque-English CLIR. In *Proceedings of the Seventh International Conference on Language Resources and Evaluation (LREC'10)*, 2010a.

Xabier Saralegi and Maddalen Lopez de Lacalle. Estimating translation probabilities from the web for structured queries on CLIR. In *European Conference on Information Retrieval*, pages 586–589. Springer, 2010b.

Xabier Saralegi, Iñaki San Vicente, and Antton Gurrutxaga. Automatic extraction of bilingual terms from comparable corpora in a popular science domain. In *Proceedings of Building and using Comparable Corpora workshop*, pages 27–32, 2008.

Xabier Saralegi, Iker Manterola, and Inaki San Vicente. Analyzing methods for improving precision of pivot based bilingual dictionaries. In *Proceedings of the Conference on Empirical Methods in Natural Language Processing*, pages 846–856. Association for Computational Linguistics, 2011.

Xabier Saralegi, Iñaki San Vicente, and Irati Ugarteburu. Cross-Lingual projections vs. corpora extracted subjectivity lexicons for less-resourced languages. In *International Conference on Intelligent Text Processing and Computational Linguistics*, pages 96–108. Springer, 2013.

Xabier Saralegi, Eneko Agirre, and Iñaki Alegria. Evaluating Translation Quality and CLIR Performance of Query Sessions. In *Proceedings of the Tenth International Conference on Language Resources and Evaluation (LREC 2016)*, 2016.

Daphna Shezaf and Ari Rappoport. Bilingual lexicon generation using non-aligned signatures. In *Proceedings of the 48th annual meeting of the association for computational linguistics*, pages 98–107. Association for Computational Linguistics, 2010.

Satoshi Shirai and Kazuhide Yamamoto. Linking English words in two bilingual dictionaries to generate another language pair dictionary. In *Proceedings of ICCPOL*, pages 174–179, 2001.

Jonas Sjöbergh. Creating a free digital Japanese-Swedish lexicon. In *Proceedings of PACLING*, pages 296–300. Citeseer, 2005.

Matthew Snover, Bonnie Dorr, Richard Schwartz, Linnea Micciulla, and John Makhoul. A study of translation edit rate with targeted human annotation. In *Proceedings of association for machine translation in the Americas*, volume 200, 2006.

Stephen Soderland, Oren Etzioni, Daniel S Weld, Michael Skinner, Jeff Bilmes, et al. Compiling a massive, multilingual dictionary via probabilistic inference. In *Proceedings of the Joint Conference of the 47th Annual Meeting of the ACL and the 4th International Joint Conference on*

Natural Language Processing of the AFNLP: Volume 1-Volume 1, pages 262–270. Association for Computational Linguistics, 2009.

Artem Sokolov, Felix Hieber, and Stefan Riezler. Learning to translate queries for clir. In *Proceedings of the 37th international ACM SIGIR conference on Research & development in information retrieval*, pages 1179–1182. ACM, 2014.

Andrée Tabouret-Keller. Bilingualism in Europe. *The handbook of bilingualism*, pages 662–688, 2004.

Tuomas Talvensaari. *Comparable corpora in cross-language information retrieval*. Tampereen yliopisto, 2008.

Tuomas Talvensaari, Jorma Laurikkala, Kalervo Järvelin, Martti Juhola, and Heikki Keskustalo. Creating and exploiting a comparable corpus in cross-language information retrieval. *ACM Transactions on Information Systems (TOIS)*, 25(1):4, 2007.

Tuomas Talvensaari, Ari Pirkola, Kalervo Järvelin, Martti Juhola, and Jorma Laurikkala. Focused web crawling in the acquisition of comparable corpora. *Information Retrieval*, 11(5):427–445, 2008.

Kumiko Tanaka and Kyoji Umemura. Construction of a bilingual dictionary intermediated by a third language. In *Proceedings of the 15th conference on Computational linguistics-Volume 1*, pages 297–303. Association for Computational Linguistics, 1994.

Takashi Tsunakawa, Naoaki Okazaki, and Jun'ichi Tsujii. Building Bilingual Lexicons using Lexical Translation Probabilities via Pivot Languages. In *LREC*, 2008.

Ferhan Ture, Jimmy Lin, and Douglas W Oard. Looking inside the box: Context-sensitive translation for cross-language information retrieval. In *Proceedings of the 35th international ACM SIGIR conference on Research and development in information retrieval*, pages 1105–1106. ACM, 2012.

Iñaki San Vicente and Xabier Saralegi. Polarity Lexicon Building: to what Extent Is the Manual Effort Worth? In *Proceedings of the Tenth International Conference on Language Resources and Evaluation (LREC 2016)*, Paris, France, may 2016. European Language Resources Association (ELRA).

Srinivasarao Vundavalli. Mining the behaviour of users in a multilingual information access task. In *CLEF 2008 Workshop Notes, Aarhus, Denmark*, 2008.

Dietmar Wolfram, Amanda Spink, Bernard J Jansen, Tefko Saracevic, et al. Vox populi: The public searching of the web. *JASIST*, 52(12):1073–1074, 2001.

Hua Wu, Haifeng Wang, and Chengqing Zong. Domain adaptation for statistical machine translation with domain dictionary and monolingual corpora. In *Proceedings of the 22nd International Conference on Computational Linguistics-Volume 1*, pages 993–1000. Association for Computational Linguistics, 2008.

Mairidan Wushouer, Toru Ishida, and Donghui Lin. A heuristic framework for pivot-based bilingual dictionary induction. In *Culture and Computing (Culture Computing), 2013 International Conference on*, pages 111–116. IEEE, 2013.

Jinxi Xu, Ralph Weischedel, and Chanh Nguyen. Evaluating a probabilistic model for cross-lingual information retrieval. In *Proceedings of the 24th annual international ACM SIGIR conference on Research and development in information retrieval*, pages 105–110. ACM, 2001.

Angel Zazo, Carlos G Figuerola, José Luis A Berrocal, and Viviana Fernández Marcial. Use of free on-line machine translation for interactive cross-language question answering. In *Workshop of the Cross-Language Evaluation Forum for European Languages*, pages 263–272. Springer, 2005.

Chengxiang Zhai and John Lafferty. A study of smoothing methods for language models applied to ad hoc information retrieval. In *Proceedings of the 24th annual international ACM SIGIR conference on Research and development in information retrieval*, pages 334–342. ACM, 2001.

Jiang Zhu and Haifeng Wang. The effect of translation quality in MT-based cross-language information retrieval. In *Proceedings of the 21st International Conference on Computational Linguistics and the 44th annual meeting of the Association for Computational Linguistics*, pages 593–600. Association for Computational Linguistics, 2006.